

1. GAIA.- FEUDALISMOAREN HEDAKUNTZA ETA KRISIA.

Sartaldeko Inperio Erromatarren erorketa osteko *mende ilunak* eta gero, Kristaudiak, mendebaldeko Europan errotua, zabalkuntza prozesu ikusgarri bati eman zion hasiera, batik bat K.o. X. mendetik aurrera; hazkunde hori benetan nabarmena izan zen kontuan hartuta V. mendez geroztik Mediterraneoaren inguruko Europako lurraldeak beren baitara bildu zirela, urruneko merkataritza-harremanak murriztuz, atomizazio politikoa bultzatuz, eta landako erkidego txikiaren eta autosufizientzia ekonomikoaren nagusitasuna azpimarratuz; joera demografikoak, bestalde, hazkundekoak izateari utzi zioten gutxienez III. mendetik aurrera, eta Justinianoren Izurritea bezalako gertakariak mundu klasikoaren krisiarekin lotutako biztanleriaren hondoratzea sakondu zuten. Baina milurtekoaren bueltan, esan bezala, Mendebaldeko gizarte eta ekonomia horiek zabalkuntza fase berri batean sartu ziren (Sortaldeko Inperio Erromatarrean, Bizantzion, geldialdia nagusitzen ari zen, bitartean). Dinamika horietako batzuk, etorkizunera begira, garai batean Inperio Erromatarreko ertzetan kokatutako herri eta zonetatik abiatu ziren, hots, Frantziaren ipar-ekialdetik, Alemaniako mendebaldetik, irla britainiarretatik, Eskandinaviatik edo Frisiatik (Herbeheretatik), hots, Iparraldeko Itsasoaren inguruko herrietatik, eta agian ez hainbeste Mediterraneo aldekoetatik, K.o. 300 edo 400 urtera arte gertatu zen bezala (nahiz eta eskualde horren hegoaldeaz jabetu zen zibilizazio arabiarraren ekarpenak ere funtsezkoak izan ziren Europa modernoaren erakuntzarako). Chris Wickham historialariak dioen bezala, orden erromatarren hondarretatik “produktzio modu landatar” bat sortu zen [*peasant mode of production*], familia edo klan loturek ardaztuta (aurreko hiritartasuna eta estatuaren boterea ordezkatuz), jaunen botere militarren eta monasterioen botere ideologiko erlijiosoaren kontrolpe zuzenagoan edo zeharkakoagoan, nekazaritza erkidego txiki eta auto-hornitzaileetan antolatuta, hots, sistema feudalera zeraman bidean kokatua.

Zeren eta sistema ekonomiko historiko berezi baten baitan gauzatu zen Erdi Aroko hazkunde hura, feudalismoarenean alegia, zeina, bestalde, hazkunde horrekin batera garatu, geografikoki zabalduta eta aldatu baitzen. Sistema hori izan zen Europan nagusi izan zena, eskualde askotan, XIX. mendera arte, eta bertan aurki daitezke hala kapitalismoaren sorkuntzara eramango zuten hazietako batzuk, nola hazkunde ekonomiko jarraituaren (hots, modernoaren) sustraiak. Hala ere, nekez pentsa zezakeen inork, XV. mendearen bueltan, Europa mundua politikoki eta ekonomikoki menderatzera deitua zegoenik. Gai honetan X. mendetik aipatu XV.era doan garaia aztertuko dugu, hots, Erdi Aroko feudalismoarena.

Izan ere, hazkunde ekonomiko modernoak, hots, biztanle bakoitzeko ondasunen eta zerbitzuen produktioaren gehikuntza jarraitua, ez zen ohiko gertakaria Industri Iraultza aurretik; errenta per capita ez zen apenas hazten, edo estankaturik mantentzen zen, eta, batzuetan, hondoratze bortitzak jasaten zituen, oso epe luzekoak (hilkortasun handiekin batera gertatu ohi zirenak). Herrialdeak ez zeuden oso populatuta, jendearen bizitza-itxaropena oso laburra zen, populazioaren gehiengo handiak nekazaritzan egiten zuen lan, produktibitate mailak txikiak ziren, kontsumoa urria zen, eta salerosketek nahiko rol eskasa jokaten zuten ekonomian. Lurra, bestalde, ez zen modu askean trukatu zitekeen salgai bat, eta gehiengo nobleziaren eta Elizaren esku zegoen, nekazari txikiei eta baserritarrei maiztertzan eman ohi zieten, errenta baten truke. Bigarren arlorak bideratzen ziren tailer eta lantegiak txikiak ziren, oro har, eta oso tresneria eta makineria mugatua zeukatzen eskura; bertan erabiltzen zen energia iturri nagusia giza edo animalia jatorrikoa zen, eta hori horrela zen, besteak beste, arlo horretan auto-hornikuntza oso ohikoa zelako (baserrietan egiten zen bertako biztanleek behar zuten ia guztia) eta, horrekin lotuta, biztanle bakoitzak artisautza-produktuetan erabil zezakeen errenta-kopurua oso txikia zelako (eta, gainera, elikagaien prezioak asko igotzen zirenean, urrialdien ondorioz, errentarik geratzen ez zelako artisautza-produktuetan gastatzeko). Garraioa, batez ere lurrekoa, oso garestia zen, eta mantsoa, eta hori ere oztopoa zen merkataritzaren garapenerako; Erdi Aroan eta Aro Berrian zehar hobekuntza gehienak ibaiko eta batez ere itsasoko garraioan egin ziren. Bestalde, ez dirudi

erakunde batzuek, lurraren jabego feudalak edo artisauen gremio-antolakuntzak bezala, pizgarri berezirik eskaintzen ziotenik hazkunde ekonomikoari, berez (hots, egonkortasuna hobesten zuten, ezer baino gehiago). Dena dela, Erdi Aroan eta, batez ere, Aro Berrian zehar egoera hori pixkanaka aldatzen joango zen, hazkunde ekonomikoa (bere onura eta kalte guztiekin) bizkorragoa eta “ohikoagoa” bihurtuko zen garaira eramanez: kapitalismoaren alegia.

1.1. Demografia-, nekazaritza-, merkataritza eta ehungintza-hedakuntza X. eta XIII. mendeen artean.-

Feudalismoaren jaiotzak eta hedapenak mendebaldar Europa kristauaren hazkunde ekonomikoarekin bat egiten du. Fenomeno hori sistemaren ezaugarrietako batean datza batik bat: nekazari familiek kudeatutako ustiategi txikien dinamikotasunean eta indarrean alegia. IX.-X. mendetik ditugu susperdura horren arrastoak, aurreko garaiekin kontraste handia aurkezten dutenak (VI. mendetik, hots, 541-42ko Justinianoren Izurrite gogorraz geroztik, badirudi europar populazioa estankaturik geratu zela; hondoratze horren zantzuak, edonola ere, nabarmenak ziren, Sartaldeko Inperio Erromatarrean, K.o. III. mendetik aurrera.). Baina X. mendean Europan 18 eta 42 milioi pertsona bizi baziren (Russell-en edo Bennet-en datuei kasu eginez gero), XIII. mendean bukaeran kalkulatu da 55 eta 73 milioi bitartean bizi zirela (kopuruak, proiektzioak direnez, ez dira batere ziurrak, baina joera adierazten digute). Gutxienez bikoizketa bat, beraz (eskualde batzuetan hirukoiztera heldu zen). Hazkunderik nabarmenena Mendebaldeko Europan gertatu zen, eta handik bere periferiara zabaldu zen, emigrazioa zela medio; dentsitate altuenak bertan ematen ziren (Flandria, 60 bizt./km²), Kristaudiaren mugetan dentsitate baxuagoak aurkitu diren bitartean (Mantxa edo Ekialdeko Alemania, 5 bizt./km²).

Erregimen demografikoak hainbat ezaugarri zituen garai horretan: bizi-itxaropena txikia zen, 35 urte ingurukoa-edo (XIII. mendean; epealdiaren hasieran 22 inguruan egon zitekeen, demografo batzuen arabera), industriaurreko populazio bati dagokion bezala. Hori gertatzen zen, alde batetik, ohiko heriotza tasa altuak zirelako (%30-40 ingurukoak), eta, haien baitan, haur hilkortasuna bereziki nabarmena zen (horrek azaltzen du zergatik zen horren txikia bizitza-itxaropena). Hilkortasun tasa handi horiek konpentsatzeko, jaiotze tasak ere altuak ziren (%35-45, hots, 5 seme-alaba bikote bakoitzeko, bataz beste); horrek guztiak populazioaren hazkunde natural mantso bat zuen ondorio gisa. Baina gainera noizean behin heriotza krisi handiak gerta zitezkeen, populazioaren hazkunde mantso hura aldrebesten zutenak, eta zehinetan heriotza tasa nabarmen igotzen baitzen: heriotzaren eraso bortitz horiek gaixotasun epidemikoek, goseteek eta gudek ekartzen zituzten. Hilkortasun krisialdi horiek tokikoak edo eskualdekoak izaten ziren, eta hedatzen zirenean krisi orokor bat ekar zezaketen, herrialde edo are kontinente mailakoa.

Zer gertatu zen garai hartan? Noski, hilkortasun krisialdiak ez ziren desagertu Europatik¹, baina haien eragina moteldu egin zela dirudi (batez ere izurri edo epidemia handiena). Horrek hazkunderako aukera handiak ematen zituen: haur gutxiago hiltzen zen, familia gehiago osatzeko aukera zabaldu zen eta populazioaren hazkundera finkatu egin zen. Hori gertatzeko ezinbestekoa zen elikagai-produkzioaren biderkatzea: hori izan zen, hain zuzen ere, Europan jazo zena.

Nola islatu zen hazkunde hori? Alde batetik, lur landuen eta bizilekuen zabalkuntza gertatu zen; hutsik zegoen lur asko nekazaritza-lur bihurtu zen, basoak atzera egin zuen Europa guztian, eta askotan herri berriak sortu ziren: adibidez, oso ohikoa gertatu zen, Europako zenbait eskualdeetan, herriak bailaretan eta haranetan kokatzea, ordura arte mendi magaletan bizi zen jendeak fundaturik (gogoan hartu Erromatar Inperioaren krisiaren ostean, Europak inbasioak eta bortizkeria jasan zituela etengabe ia X. mendera arte, eta populazio

¹ Goseterik inportanteenak: 1005-1006, 1123-25, 1195-97, 1221-24.

urriak goialdean aurkitu zuela babes, mendi-lur aldapatsuak nekazaritzarako nahikoa desegokiak baziren ere; horrela, segurtasuna handitzerakoan, jendea bailara eta haranetara jaitsiko zen eta bertan lur emankorragoak ere aurkituko zituen). Beste aldetik, populazioak geroz eta kontzentratuago bizitzeko joera izango du, eta sedentarizazio prozesu bat nabarmentzen da, halaber, prozesu bat zeinetan basogintzan, abeltzaintzan eta nekazaritza ibiltarian oinarrituagoa zegoen ekonomia batetik abeltzaintza-nekazaritza egonkorrago baterako urratsak eman baitziren eskualde askotan. Hazkunde estentsibo edo hedakor bat gertatu zela argi dago²: basoak moztu eta urratzen dira, eta zingirak lehortu (azken hori gutxiago gertatu zen, noski; batik bat Ingalaterra, Flandria, Po bailaran eta Zeelandan).

Bestalde, hazkundera lehen okupatuta zeuden lurretan ere nabaritu zen. Horietan populazio-dentsitatea handitu zen: lur-sailak banatu eta birbanatu ziren, lehenagoko herrietako etxe eta baratz kopurua biderkatu zen, etab. Hazten ari ziren herri horietatik irten ziren lur berriak lantzerako joan zirenak. Horrek zera adierazten digu: hazkundera ez zela soilik estentsiboa izan, baizik eta baita intentsiboa ere, ustiategien eta langileen produktibitatea igo zela, alajaina.

Hori guztia VIII.-IX. mendetik pixkanaka-pixkanaka baina etengabe garatzen eta zabaltzen ari ziren hainbat asmakuntza eta aldaketa teknikori esker gertatu zen. Aurrerapen horiek pilatuz joan ziren eta produktibitatearen igoera nabarmen bat bultzatu zutela dirudi. Nagusienak hauek izan ziren: belarridun goldea (batzuetan gurpilduna zena, eta dokumentazioan *carruca* bezala azaltzen dena), astunagoa; haren burdinazko “belarriari” [*vertedera*] esker ipar-Europako lur heze eta gogorragoak sakonki lantzeko gaitasuna zuen, lurra hobeki aireztatzen zuelarik ere; erromatar goldea ordezkatu zuen Mediterraneo ingurutik at. Asmakuntza hori zaldiaren nekazaritza-erabilerarekin batera zabaldu zen, lurra idiekin baino azkarrago goldatzeko aukera ematen zuelarik, eta golde astunago hura arrastatzeko ere (garraiorako baliabide eraginkorragoa izateaz aparte, noski). Zaldiaren eta golde astunaren erabilerarako ezinbestekoa izan zen beste asmakuntza itxuraz apalago bat, zaldientzako lepokoarena [*collera*], zaldia itozteko arriskutik urruntzeko, eta trakziarako asmatu edo zabaldu ziren beste elementu garrantzitsuekin batera: estriboa, ferra, brida [*freno buca*]: horrela, arraste-ahalmena laukoiztera heldu zen. Horrekin guztiarekin batera, Mediterraneo ingurutik kanpo ere, hiru orritako labore-txandaketa sistema zabaldu zen, zeinaren arabera urtean zehar lurren heren bat baino ez zen lugorrian geratzen (neguko – garia eta zekalea– eta udaberriko zerealak –garagarra, baina batez ere oloa, edo, batzuetan, leguminosoak³– konbinatuz); horrek, gainera, nekazaritza-ahaleginaren antolaketa kolektibo batera behartzen zuen, nekazarien erkidegoa edo komunitatea finkatzen lagunduz. Mediterraneo aldean, ordea, erromatarren garaitik nagusi zen bi orritakoa erabiltzen jarraitu zen, oro har. Ur-indarraren erabileraren zabalkuntza kontutan hartzeko beste asmakuntza bat izan zen, Erdi Aroko energia-baliabideen biderkatzea ekarri zuelarik: errota ari gara, batik bat. Giza-indarra ordezkatzeko bide izugarria izan zen (errota batek 40 gizakiren lana ordezkatu ohi zuen, ehotze lanetan alegia) eta, erromatarren garaitik ezaguna bazen ere, VIII.-IX. mendetik hasi zen hedatzen⁴, lan-denbora aurrezki inportanteak eskainiz: batez ere ale-ehotzean (errotak), baina baita burdin ekoizpenean ere (eta burdin merkeagoa egitea garrantzitsua izan zen guda-industriarako, nekazaritzarako bezala, belarridun goldearen piezak egiteko, adibidez, baina baita aitzurrak hobetzeko, sega zabaltzeko, etab.) eta, denbora joan ahala, ehungintzan eta papergintzan orobat (horiek nekazaritza-arloaren garapenerako garrantzi gutxiago izan bazuten ere).

² Luberritze horiek, hasiera batean deskoordinatuak eta ezkutukoak izan baziren ere, nekazariak egindakoak (batik bat VIII. eta XI. mendeen artean), XII. mendetik aurrera jaun feudalen gidaritzapean egingo dira, aberastasun-iturri oparora gerta zitezkeela konturatu zirenean. Erritmoa moteltzen joan zen XIII. mendearen bukaera aldean.

³ Baba, garbantzu, dilista.... lurraren nitrogenatzea handitzen zutenak.

⁴ Agian esklabo kopuruaren jaitsieraren ondorio bezala-edo...

Asmakuntza horiek, noski, ez ziren egun batetik bestera gauzatu; mantso-mantso zabaldu ziren (batzuek, zaldiaren eta golde astunaren erabilerek bezala, Nekazaritza Iraultzaren garaira arte jarraitu zuten hedatzen, hots, XVIII.-XIX. mendeak arte), eta haien efektua akumulatiboa izan zen: sistema feudalak ez zuen aldakuntza azkarrik bultzatzen (are gehiago, estankamendu edo geldialdirako joera zen nagusi, nahiz eta ez izan guztiz estatikoa). Zaila da esatea, ordea, zerk bultzatu zituen aldaketak. Historialari batzuentzako gorantz zihuan populazioaren presioak jendearen asmakuntzarako joera areagotuko zuen, hazkundera bermatuz; beste batzuentzat, ordea, hobekuntzen zabalkuntzak eta ondorioz jazo zen produktibitatearen igoerak egin zuen posible europar populazioak ezagutu zuen hazkunde hura, familia-eraketarako perspektiba hobek askaini zituelako. Edozein kasutan, elkarreragiten zuten indarrak izango dira, “zirkulu bertutetsu” bat, nolabait esateko.

Guy Bois historialari frantsesaren arabera demografiaren bultzada soilean oinarritutako azalpena sinpleegia litzateke: harentzat, bultzada horren guztiaren oinarrietako bat Estatuaren boterearen ahulketa eta desagertzea litzateke, erromatar inperioarena eta germaniar erresumena alegia: nekazaritza arloan mamitzen ari ziren indarrak lehengo maila berean xurgatzeari utziko zioten desgitean, eta nekazaritza-indar horiek “askatzean”, produkzioa hobetzeko pizgarri gehiago egongo zen, aldaketa tekniko horien asmakuntza eta zabalkuntzan islatuko zena. Boisen arabera, bestalde, kristaukuntzaren aurreraldiak ere eragina edukiko zuen: Elizak ezkontzaren erakundera eta familia defendatzen zituen, hala pertsona librean nola esklaboaren artean, eta badirudi familia-unitatea bereziki egokia gertatu zela hazkunde mota hori zabaltzeko.

Beste egile batzuek beste arrazoi posible batzuk gehitzen dituzte: klimaren hobekuntza erlatiboa IX.-X. mendetik, negu epelago eta ez hain euritsuekin (uzta hobegoen aukerak handitzen zituztenak); segurtasun orokorraren igoera: guda gutxiago izan ziren, ekialdetik eta iparraldetik III. mendetik X. erarte etengabe ailegatutako inbaditzaileen uhinak (hungariarrak, itsaslapur sarrazenoak, eta batez ere bikingoak) gelditu ziren XI. erako; sistema feudalaren finkapenak, gerrak guztiz desagerrarazi ez bazituen ere, horien eragina mugatu zuen, antza, eta egia bada ere jaunek geroz eta eragin handiagoa lortu zutelarik nekazarien erkidegoen gain, horren truke-edo babes handiagoa lortu zuten nekazariak, gerren eta lapurreten eragina mugatu zelarik. Elizaren ekintza, berriz ere, inportantea gertatu zen, “Jainkoaren Bakearen” kontzeptua defendatuz eta gerrari arau mugatzaileak ezarriz (adibidez, egutegiaren data jakin batzuetan, jai erlijiosoekin lotuta, bortxaren erabilera eta gerra debekatuz) eta, are, aristokrazia militarren gerra-nahiak Europa kristautik aldentzen lagunduz, Gurutzada edo *Errekonkista* lurretara (lehen aipatutako ezkontzaren eta familia eredu egonkorren defentsaren eragina ahaztu gabe); azkenik, bada xaboiaren erabileraren zabalkuntzaren ondorio higieniko onuragarrien rola defendatzen duenik, baina berrikuntza horren benetako eragina, gizarte-talde eta leku jakin batzuetatik kanpo, eztabaidagai dago oraindik.

Esan bezala, hazkunde demografiko eta ekonomiko hori guztia ez zen Mendebaldeko Europara mugatu: Europa kristauaren mugak berak zabaldu egin ziren, kasu gehienetan militarri, Ekialderantz (*Drang nach Osten* delakoa, alemaniarren ekialderako martxa Austria, Bavaria eta Hungaria aldera –X. mendean–, Elbaz haratago Ekialdeko Alemaniara –XI.-XII. mendeen bitartean– eta Prusia, Polonia eta Lituaniara, Teutoniarrak Zaldunen gidaritzapean –XIII. ean–; kasu gehienetan eslaviarrek –*wend* delako jendeak– modu sakabanatuago batean okupatutako zonetan ezarri ziren, lehenagotik zeudenak desplazatuz, batzuetan⁵); Hegoalderantz (Penintsularen “errekonkista” kristaua, IX.-XIII. mendeen artean, eta

⁵ Elba eta Oder ibaien artean, adibidez, kalkulatu da, M. Livi Bacciren arabera, 200.000 alemaniar zabaldu zirela XII. mendean; ez dirudi asko, egungo terminoetan, baina garaiko populazioak txikiagoak ziren, eta nekazaritza-teknika eraginkorragoek hornituta zihozten etorkin berrien ugaltzeko joera askoz ere handiagoa. XIV. mendeko krisiarekin mugimendu hau, besteak bezala, gelditu egin zen, baina krisiak ez zuen moztu guztiz, eta, erritmo mantsagoan baina, jarraitu zuen hurrengo mendeetan, kasu batzuetan XIX. mendera arte; erkidego judu-alemaniarren zabalkuntzak (yiddisha hitz egiten zutenak) bide hori jarraitu zuen, hain zuzen ere.

Siziliaren konkista normandoen aldetik, XI.aren bukaeran); eskandinaviarren emigrazioak izen bereko penintsularen iparralderantz; eta, noski, Gurutzadak Palestina aldean, ez horren masiboak eta esan nahi politiko-erlijioso handiagorekin, baina europar dinamikotasunaren erakusle izango zirenak (1096-1254 bitartean). Ingelesen eta eskoziarren arteko gerrak (eta, jakina, ingelesen nagusigoaren eta eragin politiko-kulturalaren zabalkuntza) testuinguru horretan kokatu ohi dituzte historialari batzuek, eta baita itsasoaren gaineko gero eta kontrol handiagoa ere (bikingoak Amerikara iritsi bide ziren –X. mendean Groenlandiara, eta XI.aren hasieran Ternuara–, eta italiar marinela mediterranearen espazioaren ardatz bihurtzen ziren, Asiako salgaien eta europar saltokien arteko zubia –XI. mendera arte, ordea, Mediterraneo “laku islamdar” bat izan zen guztiz–).

Konkista, emigrazio eta birpopulaketa prozesu horiek botere politikotik bultzatzen ziren, populatzaileei baldintza onak eskainiz etab. Mendek aurrera ahala moteltzen joan ziren, eta abiapuntutik hurbilen zeuden lurak nahiko dentsoki populatu ziren arren (Iparraldeko meseta, esate baterako, edo mendebaldeko Alemania inguratzen zuten lurak), urrunago zeudenetara, askotan baldintza onak eskaintzen baziren ere, ez zen hainbeste jende joan (hazkunde demografikoa mantsotzen joan zen), eta erregeek lur ugari banatu zuten noblezia eta apaizeriaren artean, leku horietan jaurerri edo jaurgo [*señorío*] zabalak sortuz: horrek garrantzi handia izango zuen hurrengo mendeetan, sistema feudalak gehiago iraun baitzuen zona horietan.

Hazkunde hori guztia gizarte- eta ekonomia-sistema edo produkzio era jakin baten mugen barnean gauzatu zen: feudalismoaz hitz egitea ezinbestekoa izango zaigu, hortaz. Feudalismoa, oro har, XI. eta XVIII. mende bitartean Europan nagusi izan zen sistema sozio-ekonomikoa dugu. Bere sustraiak goi Erdi Aroan eta batez ere Karolingiar garaian izan bazituen ere, ez da nagusitzen, Mendebaldeko Europan, XI. mendearen erdialdera arte, eta handik ekialderantz, iparralderantz eta hegoalderantz hedatu zen. Eskualdekako desberdintasun nabarmenak izan bazituen ere (ez da berdina Paris inguruko feudalismoa, Alemaniako ekialdekoko edo Gaztelakoa), posible da ezaugarri amankomun batzuk zerrendatzea. XI. eta XIII. mendeen artean feudalismoak bere etapa edo garai “klasikoa” bizi izan zuen; XIV. eta XV. mendeetan sistemaren krisialdi sakon bat ezagutuko zen, eta XVI. eta XVIII. mendeen artean feudalismo eraldatu edo berritu bat finkatu zen: feudalismo garatua edo berantiarra (zeinetan Estatuaren papera lehen baino erabakigarriagoa izango baitzen, eta Europako Mendebalde eta Ekialdearen arteko zanga zabalduko baitzen); egile batzuek Antzinako Erregimena deitzen diote azken etapa horri.

Ezin dugu feudalismoa sistema ekonomiko soil bat bezala ulertu, sinplifikatzeko hala egiten badugu ere: garai horretan maila sozio-ekonomikoaren eta politiko-ideologikoaren artean ez zegoen mugarik, dena bat zen (bereizketa hori kapitalismoaren garaikoa da). Bestalde, irakasgai honetan sakonago azaltzeko astirik ez dugun arren, ezin dugu ahaztu erlijioak izan zuen garrantzia, kristautasunak alegia, gizarte eredu horren indar kohesionatzaile gisa, eta Elizaren rola bera, erakunde bezala hain zuzen ere.

Feudalismoaren jatorria Erromatar Inperioaren krisi garaian eta Goi Erdi Aroan legoke (III.-IV. eta X. mendeen artean), *Mende Ilunetan*. Antzinate berantiar garaiko sistemaren eraldaketaren ondorio izango litzateke, faktore hauetan oinarritua: alde batetik, merkataritza-ekonomiaren eta hiritar bizitzaren gainbehera; bestetik, lur-jabego handiaren berrindartzea; erromatar garaiko lurjabeen eta germaniar aristokrazia militarren arteko bateraketan; eta, azkenik, estatu-boterearen ahultze eta deuseztatpenean (erromatar inperioaren gainbeheratik, esaterako, estatuak garrantzia galdu zuen zerga-biltzaile zentralizatu gisa).

Sistema sozio-ekonomiko horren ezaugarrien artean nekazaritza arloaren nagusigo absolutua egongo litzateke: gizartea eta ekonomia landa eremutik antolatzen zen, bertan populazioaren %80 inguru bizi eta lan egiten zuelarik (batzuetan gehiago). Hirien eta hiritar bizitzaren garrantzia, handiagotuz joango zen arren, oso txikia zen.

Edonola ere, eta jaun handien eragina (beren erreserbaren bitartez batez ere, hots, zuzenean ustiatzen zituzten lur-sailen bitartez) oso nabarmena bazen ere, lurraren erabilera nekazarien esku zegoen, nagusiki, hots, haiek zuzentzen eta kontrolatzen zuten produkzio biderik inportanteena, nahiz eta gehienetan lur horiek ez ziren, juridikoki, haien jabegokoak. Nekazariak osatzen zuten ekonomia mota horren zutabea, eta sistemaren elementurik dinamikoena ziren: horietako batzuk lurjabe txiki eta ertainak izango ziren (*alodioen* jabe, hortaz), baina gehienek (batez ere denborak aurrera egin zuen heinean) juridikoki beste norbaitenak ziren lurrak lantzen zituzten: jaun feudalenak, alegia. Hala ere, produkzioaren kudeaketa eta antolaketa nekazarien esku zegoen, eta produkzio bideak (kapitala: tresneria, animaliak, etab.) nekazariarenak ziren, oro har; hots, ustiategia eta nola ustiatzen zen nekazarien ardua zen, nagusiki, ez jaunarenak (*erreserba* handiak mantendu ez ziren lekuetan, alegia); beste era batean esanda, beharrezko produktuaren zati nagusia, edo haren osotasuna, laborari familiaren ustiategian lortzen zen, eta erreserban, soberakina. Nekazari-familia nuklearra zen oinarritzko zelula, garai horren hasieran eratzen joango zena, populamenduaren egonkortzearekin batera, aurreko populamendu ibiltariagoan nagusiago zen familia hedatu edo handiaren orde: luberritzeek eta nekazaritzarako lur berrien “konkistek” lagundu zuten eguneroko bizitzan horrenbesteko garrantzia izan zuen aldaketa horretan. Esan bezala, autohornikuntza zuen helburu nekazari-familiak, merkatuarekin lotura gutxi eta noizbehinkakoa zeukan, eta lanaren zatiketa ez zen oso xehea senideen artean: emakumeek, gizonak eta haurrak (adinean aurrera egiten zuten neurrian, batez ere) modu nahikoa berdintsuan hartzen zuten parte ustiategiak behar zituen lanetan, nahiz eta sexuaren arabera espezializazio batzuk egon bazeuden⁶. Alde horretatik azpimarragarria da nola, feudalismotik kapitalismorako trantsizio garaian, emakumearen rol *produktiboa* gero eta mugatuagoa bihurtzen joan zen, rol *erreproduktiboaren* mesedetan: izan ere, autohornikuntzara hurbiltzen zen ekoizpen unitate horretan zaila zitzakeen alderdi *produktiboak* (gaur egun merkatuan praktikatu egin ohi direnak) eta *erreproduktiboak* (etxeko lanarekin, zaintzarekin eta abarrekin lotuak) desberdintzea (hori ekonomia kapitalistaren bilakaeraren eta haren inguruko azterketa teorikoen ondorioz gertatuko litzateke, ikus 3. gaia).

Egitura horren guztiaren gaineratik jaurerria edo jaurgoa [*señorio*] zegoen. Jaurgoa jaun feudalen erdigunea zen, eta jaun feudalak garaiko noblezia militarren eta goi apaizeriaren taldeetatik irteten ziren. Jaurgoa bi motakoa izan ohi zen: alde batetik, funts-jaurgoa edo lurralde-jaurgoa, lurraren jabegoa inplikatzeko zuena (nekazariak lantzen zituzten lurrak jaunaren titularitatekoak ziren, eta hortaz alokairu edo errenta moduko bat ordaintzera behartuta zeuden). Errenta hori modu ezberdinetan ordain zitekeen: jaunaren lur sailetan (*erreserba* edo *domeinu* deitua) lan-zerbitzuak eginez (*korbeak*), produktuetan (jeneroan) edo dirutan. Eta, bestetik, ban-jaurgoa, jaurgo juridikozionala edo eskumenezko jaurgoa, lurralde horietako justizia-boterea eta, hortaz, botere politikoaren eragiketarekin lotua. Horren arabera herritarrak, nekazariak, beren jabegoko lurrak landu ala ez, jaunari zenbait ordainketa egitera behartuta zeuden (bidesariak, zubisariak, labe-sariak, errota-sariak, isunak, zerga mota ezberdinak, etab...). Azken batean, botere militarretik abiatutik, botere politikoa (administratiboa, judiziala...) kontrolatzea suposatzen zuen, hots, botere publikoaren nolabaiteko pribatizazioa.

Jaurgo mota horiek, hasiera batean ezberdindurik aurkitzen baditugu ere, Erdi Aroan zehar elkarrekin nahasten joan ziren, jaun feudalen nagusigo ekonomiko-soziala finkatuz; azken finean, bide horretatik nekazariak lortutako gain-produkzioaren zatirik handiena bereganatzen zuten jaunek. Ez da harritzekoa, hortaz, jaurgoaren erdigunean ia beti gaztelua edo dorretxea (edota monasterioa, maiz gotortua) aurkitzea: hara abiatzen zen soberakin ekonomikoa, eta hura izango zen soberakinaren gauzatzea bera.

⁶ Hirietako artisautza mundu ertarotarrari buruz beste horrenbeste esan daiteke, eta baita merkataritza eta finantza munduei buruz ere, nahiz eta agian ez landan bezain modu argian, hots, emakumea “etxeko lanekin” lotuago ageri ohi zen hirian, baina, edozein modutan ere, ez kapitalismoaren aroan bezainbeste.

Jaurgoaren naturak nekazarien taldera ekartzen gaitu bueltan, berriro ere: hasiera batean nekazari askeen, morroien edo jopuen [*siervo*] eta esklaboen arteko desberdintasunak nabarmenak ziren arren (eta baita morroien artekoak ere: batzuk, esaterako, lurrari lotuta ageri ziren, harekin batera zihoazen mansoa –lur saila– eskuz aldatzen zenean; beste kasu batzuetan, ordea, morroiak askatasuna erosteko edo are jauna aukeratzeko ahalmena izan zezakeen...), feudalismoaren garapenak talde batean elkartuko zituen, azken finean, haien gainetik beti lurjabe noble edo eklesiastiko bat edota ban-boterea zeukaten heinean. Hala, Erdi Aroan zehar esklabotza guztiz desagertuko ez bazen ere, esklaboen eta morroien arteko muga juridikoak eta sozialak lausotzen joango ziren, eta berdin gertatuko da morroien eta lurjabe txiki libreen (lur alodialen jabeen) artean: denak bihurtuko ziren, hein batean, talde menderatzailearekiko subordinatu; horren lekuko, latinezko *servus* hitzaren esanahiaren bilakaera: erromatarren garaian “esklabo” zentzua bazuen, Erdi Aroan “morroia” edo “jopua” izendatzera igaro zen, hau da, semi-askatasunezko egoera bat (gure “esklabo”, “esclavo”, “slave” hitzak, ordea, *slavus*etik eratortzen dira, hots, Goi Erdi Arotik esklabotrafikorako harrapatzen ziren Europa ekialdeko herri eslaviarretako partaideengandik...). Horrek ez du esan nahi nekazarien klasearen barnean diferentziarik ez zegoenik, txirotasun eta aberastasun maileri zegokienez alegia, edo bakoitzaren estatus juridiko zehatzari zegokionez: nekazari pobreak eta aberatsak zeuden, joputzara estuki lotuak eta libreagoak, eta are gizarte-mugikortasun bertikal txiki bat egon zitekeen, nekazari aberatsenen taldearen eta kapare [*hidalgo, gentilhomme, gentleman*] txikienen artean. Baina horrek ez du nekazalgoaren klase-izaera ezeztatzen: klase menderatuarena alegia, orokorrean libre zena baina lurrari eta jaun feudalei modu ezberdinetan lotuta agertzen zaiguna. Klase horren oinarritzko zelula nekazari-familia izan bazen ere, nekazari-herrixkan bildutako erkidegoa edo komunitatea jaurreriaren aurrean finkatzen joan zen unitate kolektibo nagusia izan zen.

Sistema horrek bazuen isla politika arloan: esan bezala, botere zentrala (erregetza) oso ahulduta zegoen eta aristokrazia militarrekin harremanak sendotzeko basailutza edo sujetasun sistema hedatu zen [*vasallaje, vassaiage*]: erregeek, laguntza militarren eta leialtasunaren truke, noblezia militarreko kideen artean lurak eta eskualdeen gaineko botere politikoa (botere jurisdikzionala) banatzen zuten, horrela erregeen basailu edo sujet bihurtzen zirelarik (gauza bera egiten zuten, orobat, monasterio eta diozesi handiekin). Basailu horiek, beren aldetik, lurak eta justizia-boterea banatzen zieten beste gerlari eta zaldun txikiagoei, boterea hiruki edo piramide baten antzera eratzen zelarik, goitik behera alegia, eta hiruki horren oinarrian, jakina, lehen aipaturiko nekazariak edota morroiak aurkituko genituzke: hori litzateke sistema sozio-ekonomikoaren (feudalismoaren) eta basailutza sistemaren (feudalitatearen) arteko elkargunea.

Gizarte eta politika sistema horrek bere ideologia sorrarazi zuen, Elizaren laguntzaz eta babesaz noski: bere ezaugarriak nagusienak hiru ordenen edo estamentuen teoria eta zalduneriaren goraipamena lirateke.

Lehenengoaren arabera, gizartea zer egin oso ezberdinak zituzten hiru taldetan (estamentutan) banatzen zen: apaizeria (*oratores*, otoitz egiten zutenena), noblezia (*bellatores*, beste taldeentzako babes militarra eskaintzen zuten borrokalariena) [bi estamentu horiek ez zuten osatuko populazioaren %5-7a baino] eta nekazariak, herria, edo hirugarren estatua (*laboratores*, besteentzako lana egin behar zutenak, otoitz eta babes horien truke). Horrek, noski, bi klase nagusi zeudela ezkututzen zuen (pribilegiadunak eta pribilegiogabeak). Bestalde, adierazgarria da hasiera batean nekazariak baino ez sartzea hirugarren taldean: nekazaritza-arloaren aipatu nagusigoa erakutsiko lukeen zerbait da.

Bigarren lerro ideologikoa zaldunen bertuteen goraipamena izan zen: kortesak, ahulen eta emakumeen defendatzaileak, erlijioaren aurrelariak ziren gerlariak; irudi ideal horrek, noski, errealitatearen zati handi bat ezkututzen zuen: nekazarien gaineko presioa, lapurretak, sarraskiak, harrapakinak... hots, bortxa feudalaren rola garrantzia.

Azkenik, beste ezaugarri bat, oso garrantzitsua gertatu zena, egile batzuen arabera, hemendik aurrera gauzatu zen Europaren hedakuntza ekonomikorako: lurraldea unitate

politiko ugari eta ezberdinen artean zatituta zegoela, etsaiak zirenak gainera. Hori da, besteak beste, E.L. Jones edo C. Tilly bezalako historialariek azpimarratu dutena, eta Erromatar Inperioaren erorketa ondoko atomizazio-prozesuaren ondorio litzateke. Feudalitateak muturrera eramane zituen botere politikoaren zatiketarako joera horiek; unitate politiko horiek, denborarekin tamainaz handitzen joan ziren arren, elkarren arteko lehian egongo dira beti, borrokan, inperio bateratu baten sorrera oztopatuz eta dinamismo bereziak sortuz, inperioek menderatutako beste eskualde batzuetan horren nabarmenak izan ez zirenak.

Hortaz, zein izango litzateke sistema ekonomiko horren, feudalismoaren oinarritzko definizioa? Feudalismoa gizarte- eta ekonomia-sistema bat izan zen, nekazaritza-ustiategi txikian oinarrituta zegoena, eta zeinetan gain-produkzioaren gehiengoa jaunek bereganatuko baitzuten, horretarako bortxa edo biolentziaren mehatxua erabiliz (hots, esapide marxistaren arabera, *ekonomia⁷ kanpoko bideak* erabiliz). Gainprodukzioa edo soberakina ez zen, hein handi batetan, produkzio prozesuan bertan berrinbertitzen, baizik eta, batik bat, guda, kultu eta prestigio gastuetara bideratzen.

Esan dugu hasiera batean mundu feudala batez ere nekazaritza-mundu bat izan zela, eta hala da. Nekazariak autohornikuntzarako produzitzen zuten (eta jaunari ordaintzeko, noski), hots, erabilera-balioak ekoizten zituzten batik bat, eta, ondorioz, produkzioaren oso zati txikiak merkaturatzen ziren: izan ere, Goi Erdi Aroan hiriak gutxi eta txikiak ziren, eta nekazaritza arlotik at bizi ziren giza taldeak, oso urriak. Merkataritza eta artisautza hiritarra oso ahulduta zeuden Erromatar Inperioren erorketaz geroztik, eta jaunek eurek produzitzen zuten, beren jaurerri eta gazteluetan, behar zituzten jantziak eta armak, bertan zeuzkaten lantegi txikietan. Buruaskitasuna edo autarkia nagusi zen, eta ez da harritzekoa karolingiar garaitik zetorren korbeen ohitura nahiko hedatua egotea: nekazariak beraien lur sailetan (*mansoetan*) lan egiten zuten, baina horretaz gain epealdi batzuetan jaunaren lurretara joan behar zuten, bertan lan horiek (korbeak) eskaintzera: hori zen errenta feudalak hartzen zuen formarik ohikoena, beste ateraketa edo xurgatze era batzuek zeuden arren, noski.

Baina Europako biztanleriaren eta landako ekonomiaren hazkunderari esker aldaketak gertatzen hasi ziren eskema horretan guztian: produkzioaren eta produktibitatearen igoerak posible egin zuen nekazaritza arlora guztiz lotuta ez zegoen jende proportzioaren zabalkuntza (nekazari populazioak nagusi izaten jarraitu bazuen ere, noski) eta, hortaz, hirien hazkundera, XII. mendetik aurrera batik bat. Segurtasunaren areagotzeak eskualdeen arteko merkataritza bultzatuko zuen, eta geroz eta gehiago hirietan artisau espezializatuek ekoizten zituzten luxuzko produktuak trukatu ziren. Erregeek eta jaunek babes emango zieten merkataritza-elkartruke horiei.

Horrek aldaketak ekarri zituen nekazaritza arloan. Jaunei geroz eta gehiago komeniko zitzaie dirua eskuratzea, goratzen ari zen merkataritzaren hazkunde horretaz profitatzeko. Horretarako domeinuaren eta korbeen sistema ez zen horren egokia, eta kasu askotan erreserbetako lurren zati batzuk *manso* bihurtuko zituzten, eta are lehengo mansoak ere birbanatu egingo zituzten ugaltzen ari ziren nekazarien familia berrien artean: jakina da nekazariak hobeto egiten duela lan “bere” lur sailean, jaunak (jaunaren ordezkariak) zuzenean kudeatutako erreserba handian baino, non lanaren produktibitatea, bataz beste, txikiagoa zela pentsatzea logikoa baita. Horretaz gain, lan-zerbitzuak baino jeneroan ordaindutako errentak edo dirutan ordaindutakoak eskatzen hasiko ziren; lan-errenten garrantzia txikitzen joango zen XII. eta XIII. mendeen artean. Horrek ez du esan nahi desagertu zirenik, noski: eskualdekako desberdintasunak nahiko handiak izan ziren⁷. Hori gertatuko zen, batez ere, hirietatik gertu, hau da, nekazaritza-produktuen kontsumo zentroen inguruan: kasurik ezagunena Italiakoa litzateke, non hiriek ez baitzuten inoiz beren garrantzi guztia galdu.

⁷ Esate baterako, Ingalaterrako hego ekialdean XIII. mendean korbeen sistema oso indartsu zegoen; Gaztelan, ordea, apenas garatu ziren *semas* delakoak...

Zaila da argitzea ea aldaketa horiek nekazaritza-baldintzen “hobekuntza” bat ekarri zuten: ziurtzat eman daitekeen gauza bakarra da eskualdekako desberdintasunak handiak izan zirela. Batez ere kolonizazio berriko espazioetan jaunak eta botere publikoak nekazariarentzako baldintza egokiagoak eskaintzen saiatu ziren, nekazariak hainbat zerga eta zametaz askatuz. Diru-errentak, bestalde, finakoak baziren behintzat, nekazariarentzat onuragarriak izan zitezkeen inflazio testuinguru batean, baina ez zeuden, ez Erdi Aroan ezta Aro Berrian ere, jeneroan ordaintzen zirenak bezain hedatuak egoten, pixkanaka gero eta ugariagoak bihurtzen joan ziren arren. Nekazaritza-produktu osoak gora egiten bazuen, gainera, errazagoa zen jaunarentzat zenbait zama eta zergez ahanzte, eta normalean gaizki eta ganora gabe betetzen ziren korbeak alde batera uztea: hori gertatu zen, adibidez, XI. eta XII. mendeetan zehar; horregatik hitz egiten dute egile batzuek “errenta feudalarren beherantzako” berezko joeraz, epe luzera begira. Edozein kasutan, korbeek gutxitzeak produkzioa modu autonomoago batean antolatzeke aukera ematen zien nekazari-familiei eta erkidegociei, eta hori, nolabait, hazkunderako pizgarri suerta zitekeen.

Hortaz, merkataritza- eta diru-ekonomiaren zabalkuntza bat gertatu ziren, luzarora ekonomia feudal *klasikoarentzat* “disolbatzailea” gertatu zena, pixkanaka, leku batzuetan behintzat, autohornikuntzarako produzitzetik geroz eta gehiago merkaturako produzitzera pasako baita, eta merkatu-harremanak izan ziren, hain zuzen ere, kapitalismoaren mundura eramango duten indarretako bat, oraingoz kapitalismoaz hitz egitea gehiegizkoa litzatekeen arren. Gainera, hiriak laster askatasunaren eremu bihurtu ziren, morrontza (eta, hortaz, askatasun eza) nagusi zen landaren aurrean: hiriak ihesbide bat suertatu ziren lurrari lotuta zeuden nekazariarentzat (“hiriko haizeak aske egiten du”, alemaniarrek zioten bezala), eta jaunek gutxi egin zezaketan iheslari posibleen aurka, horien baldintzak hobetzea ez bazen: hala gertatu zen kasu askotan... Aldaketa hori, dena dela, oso mantsoa izan zen: merkatua nagusi izateko asko falta zen (eta harekin harremanak zituztenak, nagusiki, talde pribilegiadunetako partaideak ziren, behintzat jarraikortasun batekin eta eskala handian: haiek ziren, esaterako, hirian kontsumitzen ziren ale gehienak merkaturatzen zituztenak), aldaketarako indarra hor zegoen arren...

Nekazaritza-hazkunderaren ondorio bezala, beraz, hirien hazkundera gertatu zen: Erromatar Inperioaren garaitik gainbeheran erori ziren hiri batzuk berriz ere hazten hasi ziren eta, inportanteagoa dena, hiri berri asko sortzen hasi ziren (askotan horixe adierazten digu toponimiak: Villeneuve, Villanueva, Newcastle, Newtown, Neuberg...). Hiriak batez ere artisautzaren eta merkataritzaren guneak izan ziren (halere, jatorri eklesiastikoa eta administratibo-politikoa zituzten hiriak bazeuden ere, eta halaber nekazaritza-jatorria zutenak). Europako hirien eta herrien oinarritzako sarea, egun ezagutzen duguna alegia, Erdi Aroan eratu zen.

Hiru hiri eredu ezberdinak ohi dira: antzinako hiri erromatarrarena, Europa iparraldeko hiri berriarena (Erromatar Inperioaren garaian existitzen ez zena) eta eslaviarra (gaztelu baten inguruan sortua); beste batzuek nahiago dute desberdintzea a) antzinako hiri berpiztuen, b) erabat berrien eta c) bi edo hiru nukleoek elkartzearen ondorio direnen artean.

Ezin dugu gehiegi goraiatu hiritar bizitzaren garrantzia, historiografiak askotan hala egin badu ere: kontuan hartu beharra dago hirien historiaz gehiago dakigula, heldu zaigun idatzizko informazioa ugariagoa baita, landakoaz baino. Esan bezala, bakarrik populazio osoaren zati txiki bat bizi zen hirietan, eta hiritar guztiak, gainera, ez ziren merkatariek edo artisauak: haietako asko nekazaritza-jardueretan ibiltzen ziren, edo lanbide biak konbinatzen zituzten. Oro har, nahiko txikiak ziren (XIII. mendean Europan bakarrik 70 hirik zuten 10.000 biztanle baino gehiago). Hiriaren ezaugarri nagusiak populamendu kontzentratua (landakoa baino dentsitate handiagokoa) eta harresia dira, zeinei gehitu behar baitzaizkie lanaren zatiketa handiagoa, arau juridiko bereziak (forua edo karta bat) eta landarekiko berezitasunaren kontzientzia.

Dena dela, ezin dugu ulertu Erdi Aroko hiria inguruko landa ekonomiatik kanpo: alde batetik, hiriak hazteko eta ugartzeko nekazaritza-arloan soberakin handiago bat lortzea

ezinbestekoa zelako eta hori XI.-XIII. mendeetako nekazaritza-hazkundearen ondorioz gerta zitekeen bakarrik: nekazariak ez ziren pertsona gehiago elikatzeko ahalmena handitu egin zen (demografikoki ere ez ziren independenteak: bertako heriotza tasa, oro har, inguruetakoa landa guneetakoa baino handiagoa izaki, landatik bertatik iritsitako etorkinen jario jarraitu baten beharrean zegoen hiria, hazi behar bazuen...). Bestetik, hirien hazkundeak eta hiritar bizitzaren zabalkuntzak badu zer ikusirik sistema feudalaren ezaugarriekin: jaunen arteko eta erresumen arteko kompetentziarako produktu eta zerbitzu espezializatuak eskaintzen zituzten, hala guda-ahaleginerako, nola prestigioa irabazteko. Azkenik, ezin ditugu hiriak ulertu aparteko zelula kapitalistak balira bezala, askotan jaun feudalek beraiek fundatutako guneak baitziren, hots, jaunarekiko zenbait betebeharrak zeuzkaten zentroak, askatasuna gehienetan borroka zela medio lortu zutenak.

Artisautza, eguneroko bizitzan beharrezkoak ziren objektuen ekoizpena, ez zen hirietako ezaugarri berezia: aipatu bezala, nekazarien eta jaunen ekonomiaren ezaugarri nagusienetako bat autohornikuntza zen, eta haiek egiten zituzten behar zituzten jantziak, tresnak, etab. Tokiko mailan, herrixketan, egon zitekeen langile espezializatuagoen bat (ferratzailea adibidez, edo olagizona, burdina ekoizten zen lekuetan, eta baita zapatagintzarekin, ehungintzarekin, sokagintzarekin eta bestelako jardurekin lotutakoak ere, baina gehienetan jarduera hori nekazaritzarekin konbinatzen jarraitzen zuten). Eta halaxe izaten segitu zuen Erdi Aro guztian zehar, eta baita Aro Modernoan ere. Baina, hazkunde ekonomikoak aurrera egin ahala, teknikoki aurreratutakoak eta ederragoak ziren objektuen beharra (eskaria) sumatu zen: horiek langile espezializatuagoek egin behar zituzten, eta horrela artisauen kopurua ugaltzen hasi zen. Ez da harriztekoa hirietan bildu izana: bertan babesa aurkitzen zuten, haien produktuentzako erosleak eta beste artisau batzuekin bat egiteko aukera. Hala ere, bigarren sektoreko langile espezializatuak beti izan ziren gutxiengo bat nagusiki landatarrak izaten jarraitu zuten ekonomia horietan.

Hirietan laster sortu ziren ofizio ezberdinak, normalean produkzioaren esportazioa helburu bezala zutenak, eta horrela hirien espezializazio bat sortu zen, baita ere. Artisauak tailer edo lantegi txikietan egiten zuten lan, maisu edo nagusi batek zuzentzen zuena eta familia baten antzekoa zena, bai funtzionamendu patriarkalari, bai batzuetan besteko tamainari zegokionean. Tailer horietan hiru langile maila bereizten hasi ziren: maisua edo nagusia, lanaren zuzendaria; ofizialak, hots, langile espezializatuak, askotan beren tresnen jabeak zirenak, eta soldata bat jasotzen zutenak maisuarengandik, eta ikaslariak [*aprendices*], ofizioa ikasten zutenak, eta beren lanaren truke jana eta ohea eskuratzen zutenak. Talde horien arteko erlazioak beti baketsuak ez ziren arren, gatazkak ez ziren enpresa kapitalista batean gertatzen direnak bezalakoak, familia baten barnekoen antzekoak baizik. Maisua ere langilea zen, aldi berean.

Hirietan ofizio bereko maisuen arteko elkarteak sortzen joan ziren, XII. mendetik aurrera batez ere: gremioak. Gremioen zer egiten artean erlijiosoak eta elkarlaguntzakoak zeuden, noski, baina inportanteenak ekonomikoak izan ohi ziren: artisauen babes ekonomikorako elkarteak ziren gremioak. Babesa bai merkatarien aurrean (hots, artisautza tailerrek ekoizten zituzten produktuen garraiatzeaz eta merkaturatzeaz arduratzen zirenen aurrean: merkatarien helburua, jakina, ahalik eta merkeena erostea zen), bai ofizio bereko beste eskulangileen (sarkinen) aurrean, batez ere maisu bihurtu nahi zuten ofizialen aurrean. Gremioen buru sindikoak egon ohi ziren, hots, maisuen edo maisuen ordezkarien batzarra. Batzuetan botere politiko publikoak fundatzen edo bultzatzen zituen.

Peter Kriedte historialariak ondo azaltzen duen bezala: «Familia zen [hirietako] oinarritzko produkzio-unitatea, nekazaritza giroetan ikusten zen bezala. Hala ere, gehienetan, emakumeak eta haurrak ez zeuden produkzio-prozesu horren barruan. Emakumeak etxea zaintzen zuen, eta gizonak egiten zuen lana denda-lantegian. Jabearekin ofizialak eta ikaslariak egoten ziren lantegian. Langile horiek, eraikuntza arloa bezalako salbuespenetan izan ezik, maisuaren etxean bizi ziren. Artisauaren familiaren barruan zeuden, nolabait, eta etxekeo nagusiaren agindupean. Harreman hori laneko erlazio normalen barruan zegoen, eta

ez zegoen kapitalaren eta soldatapeko lanaren arteko erlazio mota berezirik. Hiriko artisauen maisu txikiak erabilera-balioak egiten zituen, eta ez truke-balioak. Horren helburua bizitzeko beharrezkoa zitzaiena lortzea zen, gizartean betetzen zuen lekuaren arabera, eta ez soberakinak lortzea.

Artisautzako produkzioa lan-intentsiboa zen neurri handian, eta ez kapital-intentsiboa. Tresnak sinpleak ziren, eta egokiak tresna horiek erabiltzen beste langile bat lanean ikusirik ikasi zuten langileentzat. Zentzu horretan, langileek eta produkzio-bitartekoek lotura estuak zituzten euren artean. Artisautza-lantegietan ez zen lana banatzen edo zatitzen bertako langileen artean. Kasu gehienetan, produktu bat langile bakar baten eskuetatik baino ez zen pasatzen. Ez zen lanaren banaketarik ikusten, baina bai, ordea, ofizioen banaketa, banaketa ikaragarria, gainera. 1.300 urtearen inguruan 300 lanbide baino gehiago egon zen Parisen. XIV. eta XV. mendeetan 200 lanbide baino gehiago kontatu da Frankfurten. Horrela, esate baterako, arotzen artean, zurizko arotzak, arotz tornulariak, kubeta-egileak, kupela-egileak, errota-egileak eta gurdi-arotzak zeuden (hots, nahiz eta ondoren chungintzan eta metalgintzan zentratuko garen, ez ahaztu bigarren sektoreko jarduera espezializatuen kopurua oso handia zela eta ez zela bi horietan soilik agortzen, garrantzi berezia izan arren). Lanbideen banaketa handi hori lan banaketa ez egoki baten ondorioa da, oso gutxitan ikusten baitzen produktu desberdinak kalitate maila berdinarekin egiteko gai zen artisaurik.

Artisauak gremioetan antolatzen ziren. Elkarre horiek bi betebeharrak betetzen zituzten: "barrualdean lana arautu eta monopolioak ezarri kanpoaldean" (Max Weber). Bi betebeharrak horiek oso loturik zeuden euren artean, eta helburua gremioko kideen diru sarrerak segurtatzea zen. Hori lortzeko, gremioek produkzioaren ahalmena eta eskaintzaren kopurua finkatzen zuten, mugatu egiten zuten prezioen konpetentzia eta kalitate-desberdintasuna gremioko kideen artean, zaildu egiten zuten produktu berrien eta produkzio-prozesu berrien sarrera, mugatu egiten zuten merkatuko bidea eta monopolio gisa agertzen ziren, bai hornigaiak ekartzeko orduan, bai saltzeko orduan. Horrela, kide guztiak lan baldintza berdinak izatea, desberdintasun-prozesua blokeatzea eta "botere kapitalista" (Max Weber) deitu izan dena sortzen ekiditea bilatzen zen. Gremioek aurrera zeramaten politika ekonomikoa ez zegoen garapenarekin kontrajarririk, baina garapen horren eta gizartearen orekaren artean aukeratu behar zenean, azken hau aukeratzen zuten beti»⁸.

Gremioek araudi zorrotzak zituzten: denda irekietan egin behar zen lan, denon bistara; ordutegi finko bat zegoen (normalean ezin zen gauez lanik egin), prezioak tasatuta zeuden, lan-prozedurak guztiz aurreikusita zeuden... Horrek guztiak hainbat helburu zuen: produktuen kalitate jakin bat bermatzea, produkzio maila mugatzea, langile kopurua mugatzea, hiriko maisuen arteko konkurrentzia galaraztea eta berrikuntza teknikoak baztertzea edo atzeratzea. Azken finean, helburu batean laburbiltzen ziren guztiak: prezioen jaitziera galaraztea, eskaintzari mugak ezarri.

Jakina, gremio eta ofizioen arteko ezberdintasunak sakonak izan zitezkeen: batzuk aberatsagoak ziren beste batzuk baino, normalean aberats eta boteretsuen artean luxuzko oihalgintzari lotutakoak zeudelarik. Gremiorik gabeko artisautza-ofizioak maila baxuenean egongo lirake; horietako batzuk alderrai ibiltzen ziren, edo landa eta baso aldean kokatuta egoten ziren.

Gremioak *beren baitako biltze* edo *gotortze* prozesu batean sartuko dira XIV. mendetik aurrera, Erdi Aroko krisi orokorraren testuinguruan: krisi ekonomikoak artisautza gogor jo zuen eta maisuen erreakzioa defentsiboa izan zen; garai hartan orokortu ziren, adibidez, ofizialetik maisu izatera igarotzeko egin beharreko azterketak, ofizial bihurtzeko ikaslari bezala epe luzeagoak (eta ofizialetik maisura pasatzeko berdin), ofizial izateko sarrera langak ofizioko familietakoak ez zirenei eta, oro har, araudi zorrotzagoak.

Eraikuntza alde batera utzita, C.M. Cipolla eta beste historialari ekonomiko batzuen esanetan hura izango baitzen bigarren arlo espezializatuko lanbideen arteko burua,

⁸ Peter KRIEDTE, *Feudalismo tardío y capital mercantil*, Bartzelona 1982 (sarreratik hartua).

jarduerarik nagusia ehungintzarena zen, eta horren barruan, batik bat, oihalgintza [*pañería*], artilezko oihal astun eta luxuzkoak fabrikatzen zituen. Horren erdiguneak: Herbeheretako herriak ziren, nagusiki (Brugge, Gante); Iparraldeko Italiako hiri batzuk (Florentzia bezala, hasiera batean margoketa soilik gauzatzen bazuten ere), eta marginalagoak ziren Frantziako hegoaldea (Languedoc), Ingalaterrako hegoa eta ekialdea (kalitate baxuko produktuak, barnermerkatutako; dena den, denborarekin, batez ere Behe Erdi Arotik aurrera, geroz eta gehiago garatzen joan zen erdigune hori) eta Katalunia; zetagintzaren azpiarloan, bestalde, Italia zen nagusi, eta hegoaldeko Alemanian fama dezente lortu zuten *fustanak* delako ehunek (zuntz ezberdinen nahasketak). Beste eskulangintza espezializatu estrategikoa metalurgiarekin eta meatzaritzarekin erlazionatutakoa dugu, geroz eta garrantzi handiagoa lortu zuena, alde batetik, diru-ekonomiaren zilar eta urre beharrak direla medio (metal preziatuen metalurgia) eta, bestetik, hazkunde ekonomikorako eta gerrarako ezinbestekoak zirelako metal batzuk, batez ere burdina: kasu horretan, gorago aipatu bezala, energia hidraulikoaren aplikazioa iraultza handia gertatu zen, burdinolaren zabalkuntzaren bitartez. Burdinolak, bestelako eskulangintza-lantegi espezializatuak ez bezala, ez ziren hirietan kokatzen, basoan baizik, erregaia behar zutelako (egur ikatza) eta energia hidraulikoa, hauspoa eta (geroago) mailu handiak (gabiak) mugitzeko; burdinoletan metala lortzeko erabiltzen zen sistema zuzena zen, hots, burdin gozoa labe baxuan lortzen zen zuzenean, burdin-mea hainbat orduz berotu eta gero, egur ikatzaren konbustioaren bitartez. Europako leku gehienetan praktikatzen zen arren, mea-metalurgiaren erdigune nagusiak hauek ziren: Erteuropa (zilarra, kuprea, beruna, burdina), Kornualles (estainua, burdina), Suedia, Bizkaia eta Katalunia (burdina). Gorago esan bezala, bigarren sektoreko beste jarduera nagusia eraikuntza litzateke. Landan, etxearen eraikuntza, autohornikuntzara bideratutako ekonomia baten baitan, nekazariaren beraren kontua izaten zen (ez gutxitan erkideen laguntzaz burutua), baina hirietan gero eta gehiago langile espezializatuaren kontua bihurtuz joan zen, batez ere eraikin erlijiosoen eta militarren eraikuntzarekin lotutako arkitekto eta igeltseroena, askotan elkarte edo gremio ibiltariak osatu eta Europa osotik barreiatu zirenak (estilo artistiko ezberdinak zabalduz, erromanikoa edo gotikoa bezala...).

Hiri-hazkundearen beste ardatza merkataritza izan zen, merkataritza-elkartrukeen suspertzea hain zuzen ere. Urruneko merkataritzak Erromatar Inperioaren garaitik ez zuen garrantzi bat irabazi zuen. Aipatu dugun bezala, hirien sorkuntza edo berpizkundea, hein batean behintzat, elkartruke guneen hazkundearen ondorioz gertatu zen. Izan ere, H. Pirenne, edo P. Sweezy bezalako egileentzat gertakari erabakigarria hiri-bizitzaren berpizkundea ulertzeko X. mendetik gauzatzen hasi zen mediterraniar ekonomiaren berreraikuntza izango zen; M. Dobb edo R. Brenner-en aburuz, ordea, hirien hazkundea ekonomia feudalaren hazkundearen ondorio zuzena izango zen: artisautza eta merkataritza zentro espezializatuak sortu ziren, erresumen eta nobleen arteko konpetentziarako produktu baliagarriak egiten zituztelako: gudarako produktu konplikatuagoak (armadura, adb.) eta jarraitzaileak erakartzeko eta prestigioa irabazteko produktu espezializatuak, luxuzkoak. Gainera, merkataritza-zirkulazioari zergak ezartzea oso erraza zen, eta jaunek eta erregeek aukera hori aprobetxatu zuten, hiriak fundatuz eta babestuz.

Dena dela, hirietan eta atzerri urrunean ekoizten ziren luxuzko produktuen merkataritza izan zen lehenengo garatu zena; hots, pisu gutxiko baino balio erantsi handiko produktuena: hura zen urruneko garraioak barneratzen zituen kostu altuak jasan zitzakeen merkataritza bakarra. Ez da harrizkoa produktuen zerrenda: luxuzko oihalak (Herbeheretatik edo Italiako iparraldetik), espeziak eta bitxiak (Asiako ekialde eta erdialdetik, Mediterraneotik igarotzen zen bide luze bat jarraituz), metal preziatuak (Afrika iparraldetik, nagusiki), etab. Noski, horiekin batera, baina distantzia laburragoetan, hirietako hornidurarako ezinbestekoak ziren nekazaritza- eta abeltzaintza produktuak garraiatzen ziren. Hala ere, pixkanaka, XIII. mendetik aurrera batez ere, ontziterian emandako aurrerapen teknikoekin batera, zama gehiagoko baino balio ez hain handiko hainbat produktu garraiatzen hasiko dira distantzia luzeetan ere, askotan nahiko azkar hazten ari

ziren hirien hornikuntzarako, edo eskualde batean urriak ziren baliabideak eramateko: gatza (Europako hegoaldeetik), ardoa (Bordele inguruetatik, adibidez), olioia (Mediterraniotik), artilea (Ingalaterratik, Gaztelatik), gatzituak (adibidez, sardinazarrak, Herbehere eta Europa Iparraldetik), eta baita garia ere (adibidez, Poloniatik), talde horretan sartuko ziren. Hori izango da, hain zuzen ere, Europa munduko beste eskualde handi batzuetatik bereizi zuen beste faktore bat; izan ere, distantzia handiko merkataritza ezaguna zen, baita ere, Txinan eta Indian, baina, Europan ez bezala, luxuzko ondasunak baino ez ziren sartzen Txinakotan eta Indiakoan. Horrek eskualdeko espezializazio maila handiagoa ekarri zuen, europar berezitasun bat izango dena.

Horren guztiaren lekuko ditugu feriak eta merkatuak (azokak) bezalako erakundeen sorrera. Elkartrukerako espazio arautuak ziren, botere publikoek (edo jaunek) babestuak. Merkatua edo azoka astean behin egin ohi zen, eskualdekoa izan ohi zen, nekazaritza-izaerakoa eta, gehienetan, landaren eta hiriaren arteko topagunea; prezioak ez ziren oso aldakorrak, parte hartzen zuten guztiek informazio zehatza baitzuten elkartrukatuko ziren produktuen inguruan. FERIA, ordea, urtean behin edo egiten zen, urrunagoko eskualdeak kontaktuan jartzen zituen, eta handienek (mailak baitzeuden) nazioarteko merkataritza handia kontaktuan jartzen zuten; hala, batez ere Europako Iparraldea eta Mediterraneo arteko zonan ugalduta ziren, hasiera batean behintzat: Alemaniako hegoaldean (Frankfurt-ekoa) eta, batik bat, Frantziako ipar ekialdean (Champagneko feria famatuak).

Elkartruke horiek aurrera eramaten zutenak merkataria ditugu, hasiera batean garraiolari lanak egiten zituztenak, baina denborarekin eta elkartruke ekonomiaren hazkundearekin geroz eta sedentarioagoak egingo direnak: izan ere, garraiolari eta merkataria lanak bereizten joango dira. Merkataririk aberatsenak, pixkanaka ere, haien hirietako talde menderatzailea bihurtuko dira, batzuetan goi-mailako ofizio-maisu batzuekin batera. Horiek izango dira, denborarekin (XII.-XIII. mendeetatik aurrera batik bat) hirietako *patriziogoia* osatu, eta batzuetan, baita noble ere bihurtzera ailegatuko direnak; horretarako, behin baino gehiagotan, jaun noble eta eklesiastikoekin borroka egitera behartuta aurkitu ziren: testuinguru horretan sar dezakegu Italiako eta Alemaniako hainbat hiriren *mugimendu komunala*, nobleen boteretik askatuz eta nolabaiteko independentzia lortuz. Halere, denbora joan ahala, oso ohikoa bihurtu zen merkataria-patrizioen nobletzea, eta horien gatazkak hirietako beste talde sozialekin, batez ere artisauekin. Horrek guztiak, dena den, diru-ekonomiaren zabalkuntzarako bultzada ekarri zuen.

Merkataritza mundua, berez, oso dinamikoa zen, konpetentzia handia egon zitekeelako eta merkataria, hurrengo ekitaldiko etekinak ziurtatze aldera, irabazitakoa behin eta berriro berrinbertitzeko ohitura izaten zutelako maiz; hala, jardueraren hazkundeak aldaketa handiak ekarri zituen, besteak beste negozioa antolatzeke eran. Lehenengo garaian merkataria bakana ohikoa zen arren, XII eta XIII. mendeetan zehar gero eta gehiagotan agertuko zaizkigu enpresa edo elkarteak: esaterako, *commenda* delakoak (zeinetan bi sozio egon ohi ziren: kapitalista, askotan zahartzen ari den merkataria bat, kapitalaren gehiengoa jarriko zuena, eta beste bat, gazteagoa, bidaiaren arriskuak etab. jasango zituena; normalean, mozkinen bi heren jasotzen zituen lehenengoak) edo, geroago, *vera societa* delakoak, zeinetan hainbat merkatarik beren indarrak eta kapitalak batzen baitzituzten negozio konkretu baterako, mozkinak jaso ondoren desegiten zirelarik (batzuetan, dena den, halako elkartearen errepikapenak enpresa kolektibo iraunkorretara eramango zuten); kontabilitate bikoitza ere XIII. mendearen amaieran hasi bide zen garatzen. Berrikuntza horien guztien jatorria, eta merkatarien interesak defendatzeko Kontsulatu eta Gilda bezalako erakundeena ere, edo bidaietarako aseguru-etxeena, Italiako iparraldeko hirietan egon zen, batik bat, eta merkataria ofizioa gero eta sedentarioagoa bihurtzen ari zela adierazten digute, besteak beste.

Merkataritzaren garapenarekin batera beste jarduera batzuk zabalduta ziren, orobat: finantza-mundukoak, batik bat. Antza, txanpon mota ezberdinak aldatzeko beharrak sortutako trukalarien [*cambistas, changeurs d'argent, money changers*] ugalketan dute bankuek

jatorria (bankagintzaren beste jatorri dokumentatua bitxigileengan aurkitu da, adibidez Ingalaterran): trukalari horietako batzuk, ferietan, gordailuak onartzen hasi ziren, merkatarien arteko kontuak zuzitzen eta, jakina, baita kreditua ematen ere; denborarekin, XIII. mendetik batik bat, bankari horiek (italiarrek lehenengo, arlo honetan ere, juduekin batera) diru-transferentziak eta maileguak gauzatzeko gero eta teknika konplexuagoak garatuko dituzte; horien artean nagusia, *truke-letra* [*letra de cambio, lettre de change, promissory note*, gaur eguneko txekearen aitzindaria nolabait]. Truke-letra merkataritza-efektu bat zen [*efecto mercanti*], transferentzia bat eta moneta-truke bat barneratu ohi zuena (gure txekearen aitzindaria litzateke). Aipatu bezala, bere jatorria Italiako merkataritzan ei dago, eta XII.-XIII. mendeetan zabaltzen hasi zen nazioarteko ferien testuinguruan. Truke-letraren bitartez igorle deritzan hartzekodun [*acreditor*] batek (adibidez, bankari baten etxean diru gordailu bat duen batek) bere zordun edo igorpendunari (bankariari) agindua ematen dio epemuga jakin batean pertsona jakin bati diru-kopuru bat ordaintzeko, normalean beste txanpon mota batean eta epe luzeago edo motzago baten amaieran (zenbat eta urrunago egon letra igortzen duen hiria eta letra kobratu behar den hiria, orduan eta epe luzeagoa). Truke-letrak *garbiak* izan zitezkeen, soilik diru-transferentzia bat gauzatzeko erabiltzen zirenean (adibidez, italiar merkataria batek Champagneko ferietan truke-letra batez ordaindu ziezaiokeen oihalpartida bat herbeheretar merkataria bati, truke-letra jaso eta aste batzuen buruan kobratuko zuena Flandriar bankari baten eskutik). Edo ez horren *garbiak*, kreditu baten interesa ezkutatzeko erabiltzen zirenean: kontuan hartu, kristautasunarentzako, garai haietan, mailegu lukurrerua (interesduna) bekatua zela, eta truke-letrek, txanpona ezberdinen arteko truke bat barneratzen zuten, tresna ezin egokiagoa suertatzen zirela halako operazioak mozorrotzeko. Horrekin lotuta egon zen, bestalde, kristauak ez ziren biztanleen espezializazioa mota horretako jardunetan (adibidez, juduena), European nahiko zabaldua zegoen joera.

Urruneko merkataritzaren polo nagusiak, Erdi Aroan, hauek izan ziren: Baltikoa (Hansa hiri germaniarren federazioaren eskuetan), Italia eta Mediterranea (Genoa eta Venezia buru izango dituelarik), Flandriak eta Ingalaterrak osatutakoa (herbeheretar merkatarien eskuetan); bigarren maila batean Proventza eta Kataluniako zonak aurki daitezke.

Erdi Aroko urruneko merkataria europarrek, merke erosi eta garesti saltzeko berezko joerarekin (alde geografiko handiek ematen zuten aukera hori), irabaziak negozioan berrinbertitzeko eta metatzeko bultzadarekin, kapitalismorantz eramaten zuen bideetako bat markatu zuten, nahiz eta merkataria gehien azken-azkeneko helburua, garai hauetan, jarduera uzteko bezainbeste aberastea izan, nobleen antzera lurretik eta errentetatik bizitzen jartzeko: haiek ezin bazuten, behintzat, beren ondorengoak nobletzeko itxaropena izan zezaketen...

1.2. Sistemaren haustura: behe erdi aroko beheraldia (XIV.-XV. mendeak).-

Lehenago aipatu dugun bezala, erregimen demografikoak hainbat ezaugarri zituen garai horretan, Trantsizio Demografikoa iritsi arte gehiegi aldatuko ez zirenak, funtsean: bizi-itxaropen txikia zen, heriotza tasa altua, jaiotze tasa altua ere, hazkunde natural mantsoa, hilkortasun krisi handiak (tokikoak ala orokorrak).

XIV. mendearen erdialde inguruan, zenbait sintomek Europa kristauak aurreko mendeetan ezagutu duen hazkundera kolokan zegoela adierazten digute: populazioaren beherakada edo geldialdia erakusten diguten datuak azaltzen dira, hots, epidemia gogorren albisteak, herri edo eskualde abandonatu eta hutsen aipamenak⁹, atzerriko konkisten bukaera, migrazio-hedakuntzen gelditzea...; bestalde, uzta txarren eta goseteen notiziak lehengo

⁹ Alemaniako *wüstungen* famatuak, Ingalaterrako *lost villages*, Gaztelako *despoblados* delakoak; Katalunian: *masos rónecs*.

dokumentazioan baino ugariagoak dira; inoiz baino guda luze eta odoltsuagoak Europan bertan (Ehun Urtekoa, adibidez) eta gizarte gatazka inportanteak gertatzen dira; eta, oro har, heriotzarekiko beldur handiagoa, artearen munduan ikus daitekeen bezala, gehi sekta eta heresia ugariagoen sorrera eta hedapena...

Krisialdi orokor baten aurrean ginateke, leku batzuetan asko luzatu zena gainera: berpizkundea ez da orokorra bihurtzen hasiko XV. mendearen erdialdera arte.

Arazo horien erdigunean beti aipatu izan den gertakizuna 1348ko Izurrite Beltza izan da, europar populazioaren laurden eta heren baten inguruan hil zuena (80 milioietatik 25; izan ere, Florentziako populazioa, XV. mendearen hasieran, XIV.aren hasieran baino %60 txikiagoa zen), gaixotasun endemiko bihurtzeaz aparte. *Yersinia pestis* baziloak eragiten zuen eta ager daitekeen hiru formetatik (bubonikoa, biriketakoa eta septizemikoa) lehenengoa izan zen nagusi; hilgarria zen kutsatutakoen ehuneko handian, eta arratoien arkakusoen bitartez transmititzen zen (garai horretan ezaguna ez zena, noski).

Gaixotasun epidemiko horren eraginak izugarriak izan ziren: kontuan hartu, besterik ez bada, suposatu zuen lan-esku galera erradikala. Baina leku batzuetan krisiaren hasiera ekarri bazuen ere, beste batzuetan sakondu baino ez zuen egin, gauzak are gehiago okertu zituen. Krisialdiaren edo geldialdiaren sintomak nabariak ziren, Europako eskualde batzuetan behintzat, XIII. mendearen bigarren erdialdetik. Kontuan hartu behar dugu eskualdeen arteko desberdintasunak, Behe Erdi Aroko krisialdiari dagokionez, handiak izan zirela, bai erritmoan bai bere eraginean; Izurriak, nolabait, zenbait kasu ezberdin “bateratu” egin zituen.

Europar krisialdi orokorrerako azalpen bat teoria *neomalthustarra* edo *ekologikoa* litzateke, M.M. Postan edo E. Le Roy Ladurie bezalako historialariek defendatu zutena; hala deitzen zaio *ez* Thomas R. Malthus abadeak horrelaxe formulatu zuelako, baizik eta Malthusen ideiatan oinarritu zirelako XX. mendeko egile horiek. Teoria horrentzat, *grosso modo*, europar populazioaren hazkundearen eta populazio horrek behar zituen baliabideen gehikuntzaren arteko oreka hautsi zenean gertatu zen krisialdia: populazioa gehiegi hazi zen eta elikagaiak lortzeko teknika produktiboagoak ez ziren hain azkar garatu, ordea; garaiko teknologia maila gaingitu egin zuen populazioaren hazkundeak eta, ondorioz, uzta txarrak geroz eta maizago gertatu ziren, urritasun aldiek geroz eta gehiago iraun zuten, jendea okerrago elikatua egongo zen, gaixotasunek jendea errazago harrapatuko zuten, heriotza tasak igo egingo ziren, eta hilkortasun krisialdiak ugariagoak eta sakonagoak izango ziren. Testuinguru horretan Izurri Beltzaren eraso prozesu horren punturik gorena bezala ulertu beharko litzateke.

Leku askotan nekazaritza-lurrek ezin izan zuten jasan berauek ustiatuz bizi zen jende kopurua: alde batetik, aurreko mendeetan zabalduak nekazaritza-teknikekin, jende gehiago elikatzeko lur gehiago lantzea zen irtenbide bakarra; horrek kalitate txikiagoko lurak lantzea eramango zuen (lur *marjinalak* deitutakoak, alegia), hots, oinarrian ustiategien osagarri ekonomiko bezala erabiltzen ziren belardi eta baso-lurak urratu edo luberritu egin ziren. Lur horiek, normalean, txarragoak ziren eta uzta on batzuk eman ondoren berehala agortzen ziren, *beheranzko etekinen legea*¹⁰ jarraituz. Baina, horretaz gain, nekazari-erkidegoaren abereentzako eta produktu osagarriak lortzeko lurak ziren horiek: haien hedadura gutxitzean, proteina iturri inportanteak galtzeaz gain, lurren agortzea mugatu egiten zuten ongarrien bolumena jaitsi egin zen, lurren emankortasuna gutxitu zuena. Lanaren produktibitatea jaitsiko zen halaber, idiek, zaldiek edo mandoek eskaintzen zuten energia (tirabere gisa edo garraioan) nekazarien giza indarrak berak ordezkatu behar izan zuelako, eta, maiz, lur horiek urrunago zeudelako nekazarien bizitokietatik, garraio-lanak handitu eta lekualdatzea bera zailtzen edo luzatzen zuen zerbait.

¹⁰ Beheranzko etekinen legea [edo “errendimendu beherakorrena”: *ley de rendimientos decrecientes, law of diminishing returns*] David Ricardo ekonomialari ingelesak formulatu zuen XIX. mendean, eta honela dio: *produkzio faktore batzuen gehikuntzak, beste zenbaitzuek aldagabe jarraitzen dutelarik, produkzioaren handitzea sortuko dute. Halere, une jakin batetik aurrera, produkzio faktoreen gehikuntza berdinei dagokien produkzio handitzea geroz eta txikiagoa izango da.*

Azalpen hori, uzta txarrak maizago agertarazi zuen klimaren hozte eta okertze (hezeagotze) orokor baten aipamenarekin osatzen bada ere, sinplea eta argia da, baina ezin da soilan ametitu: ez du eskualde guztietan gertatu zena azaltzen (populazio dentsitate handiegia ez zuten lekuen kasua, batez ere); ez du krisiaren iraupen luzea azaltzen; Izurri Beltzaren rola, bestalde, gaizki egokitzen zaio teoriari: argi dago goseak eragindako ahultasunak zenbait gaixotasunen eraso errazten duela, baina Izurria ez dago horien artean, antza, eta, hortaz, bere eraso handi eta zabaldua ezin du malthustar motako krisi hedatu batek azaldu.

Beste azalpenekin osatu beharko genuke teoria neomalthustarra. Argi dago produktibitatearen mugek zer ikusia izan zutela krisiaren eztandan, tokian-tokian izan bazen ere, eta muga horien izaera ez dela soilik fisikoa edo teknologikoa; batzuentzat sistema ekonomiko feudalaren ezaugarriek, batez ere jaurgoaren ingurukoek, zer ikusia izango zuten. Hemen gogoratu beharra dago zein zen garai eta nekazaritza-esparru horretako gizarte-kontraesan nagusia: nekazarien (morroien) eta jaunen (noble eta eklesiastikoen) artean ematen dena (R. Brenner historialariari jarraituz). Jaurgo sistemak berak, jaunek xurgatzen zizkieten ateraketek, uztaren zati txikiago edo handiago bat kentzen zieten zera, lantzen zituzten lurren hedakuntza eta hobekuntza aukerak mugatzen zizkieten nekazariei, inbertitzeko pizgarriak gutxituz. Eskualdez eskualde egon ziren ezberdintasunek, krisian, nekazarien erkidegoen eta jaunen arteko indar erlazioen ezberdintasunekin edukiko zuten harremana. Muga ekologikoak ezberdinak izango ziren orduan, eskualde batetik bestera: leku batzuetan, beste zenbaitzuetan baino populazio dentsitate baxuagoekin gaintutako ziren¹¹.

Gizarte kontraesan horien beste alderdi batek ere zerikusia izan dezake krisiaren ezaugarriekin: XIII. mendearen bigarren erdialdetik aurrera batik bat, jaunek (hiri-tako eskaera asetzeko asmotan) hobetsi egin zuten etekin gehien eskaintzen zizkieten produktuen ekoizpena, hots, ardo, artile eta olioarena (eta baso eta mendien babesa ere), zerealek bideratutako azaleraren zabalkuntzarena baino, oinarrizko giza elikaduraren produkzioaren emendatzea oztopatu zuena. Gainera, ez dezagun ahaztu, estentsioak aurrera egiten zuten neurrian, eta ogitarako lurren eskaintza urritzen zenean, lurraren gaineko errentek gora egiteko joera zutela, maizterrak eta jopuak gero eta egoera okerragoan utziz, eta hala nekazarien familien nola erkidegoen bizimodua zailduz.

Klaseen arteko harremanen eta klase-borroken garrantzia amaituta ere, beste ikuspegi batzuek krisialdi horretaz dugun irudia osatzen laguntzen dute; Guy Boisen teoriak ari gara. Harentzat, krisialdi malthustarraren ezaugarriez gain, krisia sistemaren krisialdia izango litzateke. Eta hori gertatu zen, bere ustez, sistemaren ezaugarri baten ondorioz: errenta feudalaren beheraldirako joera [*baja tendencial de la renta feudal, declining rate of the feudal levy*] zela eta, alegia; jaunek jasotzen zuten soberakinaren zatiaren beheraldi jarraitu bat ematen zelako hain zuzen ere. Ideia horren muina produkzioaren antolakuntzan datza: ikusi genuen bezala, produkzioaren gehiengo geroz eta gehiago nekazarien lur sailetan, ustiatzean egiten zen, eta Erdi Aroan joera izan zen jaunen erreserbaren garrantzi galtzearena, hots, geroz eta gehiago produkzioaren antolatzaileak nekazariak eurak ziren eta ez jauna, zeinaren erreserba geroz eta txikiagoa bihurtzen joan baitzen; lurraren erabilera zuzena, beraz, nekazarien esku zegoen, geroz eta gehiago; nekazarien familiek eta erkidegoek bere egoera sendotu egin zuten, orokorrean, jaunaren aurrean. Hori, egoera ekonomiko orokorra hazkundekoa zenean, ez zen ia nabarmentzen jaunaren sarreretan, sarreraren bolumen osoa igotzen zelako. Baina arazo ekonomikoak sortzen joan zirenean, malthustar tankerako krisialdien ondorioz, eta are gehiago Izurri Beltzaren ostean, egoera zeharo aldatu zen, eta sistema feudalak, Boisen arabera, krisian sartuko zen: klase menderatzaileak soluziobideak

¹¹ Brenner beraren hitzetan: *Bitarteko extraekonomikoen bidez lorturiko jaurgo birprodukzioak eta subsistentzien bidez egindako nekazarien birprodukzioak, produkzio-unitateen espezializazio bat, soberakinaren berrinbertsio sistematikoa edota jarraiko berrikuntza sistematikoen ahaleginak oztopatzen zituzten. Finkatutako sistemarentzat, birprodukzio egitura horren ondorioz garrantzitsuena -beresiki, kontutan harturik epe luzean populazioaren hazkunderako joera zegoela- lanaren produktibitatearen beheraldirako joera orokorra eta, azken finean, eskala handiko krisialdi ekonomikoa sortzea izan zen.*

aurkitu beharko zituen bere statusa kolokan jartzen zuen egoera hori konpontzeko. Horregatik krisia ez zen soilik ekonomikoa edo ekologikoa izan, sistemikoa baizik.

Azkenaldi honetan beste teoria batzuek mundu feudalean merkatuak hartzen ari ziren garrantzia azpimarratzen dute, sistemaren krisiarekin izan dezakeen harremanagatik; teoria malthustarrak osatzera etorri nahiko lukete. S. R. Epstein bezalako historialariek, krisia XIII. mendean zehar gertatu zen merkatuen eta merkataritzaren garapenaren ondorio izango litzateke, nolabaiteko integrazio krisi bat (hazkunde krisi bat): merkatuak hazten ari ziren baina gero eta oztopo gehiago aurkitzen ari ziren feudalismo klasikoko erakundeen aldetik. Oztopo horiek gainditzeko ezinbestekoa zen estatuen indartzea eta zentralizatzea, eskualdekako espezializazioarekin batera, eta horrek presio handiak eragin zituen gizarte talde ezberdinen gain; Izurrite Beltza tirabirak sakontzera etorritako faktore exogenotzat har daiteke Epstein eta enparauen iritzian.

1.3. Berreraikuntza: zailtasunak eta aldaketak.

Edonola ere, krisialdiaren, populazio galeren, uzta txar jarraituen eta urritasunen unerik latzenak pasa ondoren (leku guztietan aldi berean gertatu ez zena) klase menderatzaileen eta talde herrikoiaren egoera teorikoa guztiz aldatuko zen: esku gutxiago egotean, soldata jasotzen zutenek (hiritako langileek eta nekazaritza-arloan geroz eta gehiago aurkituko ditugun jorنالارiek) soldata altuagoak lortzeko aukera izan zuten; bestalde, nekazarien familiek okupatu gabeko lur huts gehiago zeudenez, baldintza hobeak eskatzeko egoeran zeuden (ez da harritzekoa une horretan korbeak leku askotzan desagertzea...), eta errentek ere, berez, ez igotzeko edo jaisteko joera izango zuten; azkenik, nekazaritza-salneurriek, gorabehera handiko garaietatik igaro ondoren (krisiaren momentu latzenetan, batez ere urritasun garaietan, asko igotzen ziren) beheraldirako joera aurkeztu zuten: lur gutxiago lantzen ziren, baina hobeak, eta, hortaz, produktibitate handiagokoak (kontuan hartu biztanle gutxiago elikatu behar dela, baita ere): globalki gutxiago produzitzen zen, baina pertsona bakoitzeko, ziurrenik, gehiago, oinarritzko elikagaien prezioen jaitsierarako joera ekarriko zuena (soldata errealean igoera are gehiago azpimarratzen zuena). Hori, batik bat, oinarritzko produktuetan nabaritu zen.

Lur “hutsen” ugaritasunak, zerealen prezioen jaitsierarekin batera, nekazaritza-dibertsifikazioaren hazkunde bat ekarri zuten, zeinaren ondorioz zerealen garrantzia produkzioan (eta dietan) murriztu baitzen (aldiz, haragi eta ardo gehiago kontsumitzen hasi zen, zeren nahiz eta populazioa orokorrean jaitsi, laborariek eta hiriko langile xumeek produktu horietako gehiago erosi ahal izan zituzten, eta, ondorioz, horien prezioak ez ziren hainbeste jaitsiko, oro har; bitxiki, iturburua haragia zuten proteinen kontsumoa handiagoa izango zen herri xehean XV. mendean eta XVI.aren hasieran, Aro Berriaren gehiengoan baino), eta eskualde batzuetan espezializatorako urrats batzuk eman ziren. Ildo horretan kokatu beharko genuke, esaterako, Ingalaterrako konderrri batzuetan garatutako abeltzaintza-espezializazioa, artzaintzan hain zuzen ere (lurren hesitze edo *enclosure* delakoen bitartez); mahastizaintzan gertaturikoa (Bordele edo Borgoina bezalakoetan), kalitatezko hiri-eskaria asetzerako gero eta bideratuagoa; *Mesta* delako artaldean elkarte handiaren hedakuntza Gaztelan (eta artile gazteluaren esportazioaren gorakada); edota polilurgintzara lotu ziren hirigune-inguruetakoko nekazaritza-eskualde batzuk (zereal, ardo, fruitu, barazkien eta haragiaren produkzioaren bidetik –batzuetan baita lihoa bezalako landare industrialekin batera ere–, adibidez, Iparraldeko Italian edo Herbeheretan, askotan zerealaren inportazio-ahalmenarekin lotuta egon zena).

Joera horietako asko negatiboak suertatzen zitzaizkien, teorikoki, jaunei: alde batetik, beso gutxiago egotean errenta global txikiagoa jasotzen zuten; bestetik, errenta horren joera, berez, beheranzkoa zen; gainera, nekazaritza-oinarritzko produktuen prezioak, beherako joera zuen, bereziki kaltegarria zena errentak jeneroan jasotzen zutenentzat (adibidez, Elizarentzat, hamarrenengatik); azkenik, hiriko prezioak eta artisautza-produktuenak hainbeste jaitsi ez

zirenez gero, eta jaunak luxuzko produktu horien kontsumitzaileak nabarmenenak zirenez, kaltetuak ateratzen ziren, orobat. Garaian, gainera, ohikoak bihurtu ziren diru-debaluazioak (erregeen diru-premien hazkunderen ondorioetako bat), eta horrek kalte egin zien errenta finkoak jasotzen zituztenei (horrekin lotuta legoke, partez, erregeek txanpontzeko monopolioa eskuratzeko nobleziarekin eta Elizarekin eduki –eta irabazi– zituzten tirabirak).

Klase feudalak lortzen zuen produkzioaren soberakinaren zatia, hortaz, murriztu egin zen, globalki behintzat. Horren aurrean klase feudalak erreakzionatu zuen, eta erreakzio horrek forma ezberdinak hartu zituen, eta ondorio ezberdinak izango zituen, Europako eskualde ezberdinetan.

Erreakzioetako bat estamentu noblearen izaeraren ondorioa da: esan dugu guden ugaltze bat gertatu zela garai horretan, guda beti izan baita, irabazlearentzat, etekinak eta harrapakinak lortzeko bide egokia. Guda horiek eskualdeetako jaunen artean emango dira, batzuetan lapurretatik nahiko gertu egongo direnak (Bandoen arteko gerra Euskal Herrian), guda zibilen forma hartuko dute (Ingalaterran, Katalunian), erresuma ezberdinen artean planteatuz (famatuena, Ingalaterra eta Frantzia arteko Ehun Urteko Guda, 1338-1453 bitartean). Soldadu profesionalen taldeen eraketa, beren zerbitzuak eskaintza onenari saltzeko prest, ohikoa bihurtu zen, eta mertzenario horien presentzia gero eta nabarmenagoa bilakatu zen Europako garai horretako paisaia belikoan.

Bestalde, jaurgo erreakzioa egongo litzateke [*reacción señorial, réaction féodale, noble reaction*]: lurren eta morroien gaineko presioa areagotzea, ahaztutako feudal eskubide eta zama berpiztuz eta are joputza bere osotasunean berrezarrituz (korbeak eta guzti), askotan gatazkak eta matxinadak eraginez (ezagunenak: Flandriakoak 1323-1328 artean, Frantziako *Jacquerie* delakoak 1358an, Ingalaterrako 1381eko errebolta, 1480 hamarkadako Kataluniako *remensa* altxamendua, XIV. eta bate zere XV. mendeko *irmandiñoen* gerra Galizian; arazo “protonazional”-erlijiosoekin nahastu ziren Hussitar Gudak, 1419-1436... laborarien mugimendu antifeudal horien azkeneko buztankada, neurri batean, XVI. mendean, erreforma protestantearen testuinguruan gauzatutako Nekazari Alemanen Gerrak izango lirateke –*Deutscher Bauernkrieg*–, 1524-1525, zeinetan anabaptismoaren inguruan matxinatutako nekazari, hiritar eta noble txikiak guztiz zanpatuak izan baitziren). Horiekin batera, noski, kontaezinezko errebolta eta erresistentzia episodio txiki, ondorio ezberdinekin. Orokorrean, Europako Mendebaldean, nekazarien garaipen batez hitz egitea guztiz ezinezkoa den arren, gatazka horien emaitzetako bat morrontzaren desagertze ia osoa izan zen; Elba ibaiaren Ekialdeko lurretan, berriz, jaunen presioak *Bigarren Morrontza* batera bideratuko du hango nekazari populazioaren talde handiak, kasu askotan XIX. mendera arte, hots, feudalismoaren behin betiko desagertpena arte.

Estatuaren egituren indarketa krisiari aurre egiteko beste bide bat izan zen, Guy Boisek Normandiarako frogatu duen bezala: garai horretan erresuma batzuetan erregearen boterea geroz eta handiagoa egiten ari zen, Aro Berriko monarkiei bidea prestatuz. Estatu bihurtu zen, bakarrik hirugarren estatuaren, hots, batik bat herriaren gain eroriko ziren zergak zirela medio, soberakinaren xurgatzaile garrantzitsuenetako bat, gero modu ezberdinetan (karguetan, soldatetan, tituluetan, oparietan, lurretan, jurisdikzioetan, zeharkako zergetan...) talde menderatzailearen partaideen artean banatuko zituenak; ez da harriztekoa, bestalde, zeharkako zergen multzoa uneotan handitzen hastea, estatu horiek zituzten beharrez gero eta handiagoak hornitzeko (zerga-masa horren guztiaren hazkundera eramanez, bestalde, parlamentuen, estatu orokorren edo korteen sorrerara: zerga berriak eta gero eta ugariagoak ezartzeko estamentuen nolabaiteko oniritziaren bila abiatu ziren erregeak, eta estamentu horiei nolabaiteko ordezkariak aitortu behar izan zieten, eta baita entzunak izateko nolabaiteko eskubidea ere), ezta aipatu debaluaziorako joerak ugaritzea garaiotan, txanpon-etxeek irartzen zituzten aletan legea murriztuz eta aleazioetan metal preziatu gutxiago sartuz.

Estatuaren botere zentralaren handitze horrek, noski, gorabehera ezberdinak ezagutu zituen leku batetik bestera, eta kontraesanak ere sortu zituen klase feudalaren baitan, nobleen

eta Elizaren autonomia politikoa mugatu zuelako, besteak beste, edo burgesiari, hein batean behintzat, karrera politiko-administratiboaren ateak irekiko zizkiolako... Baina ezbairik gabe *errenta feudal zentralizatua* deitu ohi denaren garrantzia handitzen joan zen aldaketa horiek zirela medio.

Dena dela, ahalegin eta erreakzio horiek ondorio ezberdinak izango zituzten inplikaturako eskualdeetan, baina esan daiteke kasu batzuetan, bere formagatik, kaltegarriak gertatu zirela, eta krisia okertu, sakondu edota luzatu zutela (Ehun Urteko Gudaren kasua paradigmaticoa da, adibidez).

Ekonomiaren, demografiaren eta gizartearen berreraikuntzak krisiaren ondorio berberetan izan zituen bere oinarriak. Orokorrean, birbizitze prozesu hori XV. mendearen garai ezberdinetan hasiko zen, lehenago leku batzuetan beste batzuetan baino, baina XVI. menderako berreskurapena argia zen eta, esate baterako, XIV. mende hasierako populazio mailak berreskuratu ziren, ordurako, leku gehienetan; nekazaritza-hazkundera nabarmentzen hasi zen, eta, berarekin batera, oinarritzko nekazaritza-produktuen prezioen joera gorantz aldatuko zen, lurra berrokupatzen hasiko dira, eta abeltzaintza eta nekazaritzaren arteko tirabirak sortuko ziren berriro, denbora luzean lur hutsei esker abeltzaintzaren hazkundera nabarmena gertatu ondoren; soldata errealean jaitsiera edo geldialdia nabaritzen hasi zen, etab... Berreraikuntzak arrasto esanguratsuak utzi zituen, hala eta guztiz ere, Europako zenbait eskualdetan: espezializatorako edota dibertsifikatorako joera batzuk; jabego edota ustiategi kontzentrazio batzuk; jabeen edo errentari handi batzuen inplikazio handiagoa produkzioaren martxan (horien artean burges batzuk hasiko dira nabarmentzen, eta baita nobleziaren zati bat ere –batez ere noblezia handiaren baitan, txikia eta ertaina kaltetuago ateratu ziren bitartean–).

Bigarren arloaren hazkundera oztopo ekonomiko nabarmenak zituen feudalismoaren baitan, eskariaren zurruntasuna oso handia zelako: gizartearen errentaren zati handiena elikadura ziurtatzeko erabili behar zenez, nekazaritza-produktuen garestitzeak (gosteteak gertatzen direnean, adibidez) artisautza-produktuen eskaria bat-batean murrizten zuen, bigarren arloaren hazkundera zirkuitulaburrak eta krisiak eraginez.

Hala, XIV. mendeko gosteteek eta izurritearen erasoek artisautza mota ezberdinei arazoak ekarri zituzten: eskaria jaitsi egin zen, langile espezializatu asko desagertu ziren, etab. Oro har, tokian-tokiko eta unean-uneko arazoak izan ziren. Baina, orokorrean, krisiaren ondorioz, esan dugun bezala, jaunek arazoak izan zituzten eta, ordea, soldata bat jasotzen zutenek eta, oro har, nekazariak, euren bizi-baldintzen hobekuntza bat ezagutu ahal izan zuten. Horrek hainbat ondorio izan zituen: alde batetik, produktu garestien ekoizpenean espezializaturiko arloentzat arazo gehiago izango ziren, eskaria jaitsi zelako (erosle gutxiago zegoen) eta errentaren birbanaketak, oro har, talde horien eros-ahalmena higitu zuelako; horren ondorioa izango zen, adibidez, aipatu gremioen gotortze handiagoa. Bestetik, produktu merkeagoen eskariak gora egingo zuen, landa aldeko artisautzarentzat aukera bat izan zena, batez ere oihalgintzarentzat: hala, nekazaritza-lanak abandonatu gabe familia batzuek merkatu salmentara bideratutako artisautza jarduerara osagarri bati ekingo diote (adibidez, negua bezalako garaietan, zeinetan nekazaritza lanak gutxitzen baitziren); landa aldeko oihalgintza horrek, dena dela, ez zuen jadanik autohornikuntzarako produktuko: eskualde batzuetan, geroz eta gehiago, merkaturako egingo zuen lan. Horretarako merkataria ezinbesteko laguntza izango zuen: jardueraren eskala zabaltzeko, kalitate hobegoko lehengaiak eskuratzeko, edo tresneria espezializatua lortzeko; produktuak urruneko merkatuetara eramateko; merkataria, bestalde, nekazaritza-esparrura jotzea komeni zitzaion, aipatu gremioen itxiera zela eta, hura arautu gabeko espazio bat izan ohi zelako, eta produktu merkeagoak aurkitzea errazagoa zitzaiolako bertan.

Eraitza *Verlagsystem* edo *putting-out system* (aurreratze-sistema) delakoaren sorrera eta zabalkuntzaren hasiera –soilik hasiera– litzateke. Horren arabera, merkatariek lehengaiak edo dirua aurreratzen zioten nekazari-artisauari, horren truke produkzio-maila jakin bat eta

erlatiboki merkea izango zen prezio bat alde zuzenetik finkatzen zutelarik. Merkatariek, horrela, produkzio prozesua kontrolatzen zuten, baina “kanpotik”, prozesu horretan zuzenean sartu gabe: arazoak zuzenean (eta ikusi dugu hori ohikoa izaten zela, ekonomi egitura feudala kontutan harturik), galera handirik gabe erretira zezaketen kapitala.

Prozesu horiek azaltzen dituzte, hein batean behintzat eta oihalgintza arloari dagokionean, ekoizpen erdigune tradizional batzuen arazoak edo gainbehera (Brugge, Florentzia) eta beste batzuen aurrerabidea, landatarragoak: Ingalaterra, Herbeheretako nekazaritza-oihalgintza (egun Frantzia dagoen Hondshootekoa, esaterako), Gaztelakoa (hiritarragoa zena, dena den).

Bigarren sektoreko teknikei dagokienez, XV. menderako aipatzekoak dira bolaren zabalkuntza (“batán”, oihalak jotzeko eta leuntzeko), eta, burdingintza arloan, aurreneko egur ikatzezko labe garaien erabilera Flandria aldean (burdina egiteko zeharkako sistema abian jartzen dutena), gabiarenarekin batera; kontuan hartu behar da burdinaren eskaera dezente emendatu zela urte horietan, gerraren premiei erantzuteko, besteak beste.

Merkataritza arloan ere aldaketak egon ziren Behe Erdi Aroan zehar: errentaren birbanaketa erlatiboak, antza, produktu merkeagoen salerosketarako aukerak zabaltu zituen, eta horrek mota horretako merkataritzaren zabalkuntza ekarri zuen, eskualde espezializazioa bultzatuz (hala dio E. L. Jonesek); garraio-tekniken arloan gertatutako aurrerakadak ere oso kontuan hartzekoak izan ziren (batez ere itsas garraioan, bigarren gaian ikusiko dugun bezala).

Beste aldaketa garrantzitsu bat Champagneko ferien gainbeherarena izan zen. Batzuek Ehun Urteko Gudari egozten diote, baina faktoreak anitzak izan zirela esan daiteke: zer ikusia izan zuten, besteak beste, Italia eta Europaren Iparraldearen arteko itsas-bide zuzenaren garapenak, Gibraltarretik eta Atlantikotik (itsas garraioan gauzatutako hobekuntza teknikoei esker eta bidearen kontrol kristaua finkatu zelako orobat, Penintsulako “Errekonkista” delakoaren ondorioz); oihalgintza osotuago bat bultzatzeko joerak Italian (tindatu gabeko oihalen inportazioa, Herbeheretatik, gero eta ez-beharrezkoagoa egin zuten); fisko-presioaren areagotzea zona hartako nobleen aldetik (H. Pirenne historialariak zioen bezala), eta aipatu merkatarien sedentarizazio prozesuak, mota horretako elkarguneen premia murriztu zuena (merkatariek, geroz eta gehiago, ordezkarien eta sukurtsalen bitartez egin zuten lan orduz geroztik). Horrek guztiak ez du esan nahi, dena den, feriak desagertu zirenik, baina Europako merkataritza- eta finantza-erdiguneen arteko harremanak geroz eta gehiago zuzenean gauzatu ziren XIV. mendetik aurrera, eta feriak sistema ekonomikoaren “periferian” kokatzen joan ziren (Iberiar Penintsulan, Europako ekialdean): eskualde “azpigaratu” horiek eta merkataritza “garatuagoa” zuten erdiguneak harremanetan jartzeko helburua izango zuten, batik bat.

Garai horretan, beraz, ez da harrizkoa merkataritza-tekniken bilakaera bizkor bat gertatzea: merkataritza-sozietateen garapena (enpresa eredu gero eta finkoagoetara eraman zuena), eta transferentzia eta maileguak egiteko geroz eta tresna konplexuagoak (kontabilitate bikoitzaren tekniken finkatzea, esate baterako, edo truke-letraren erabilera zabalago bateko aukerak: hala, endosapetuak [*endosos, endorses*] egiteko aukera zabaltzen hasi zen –letra kobratu behar zuenak beste baten izenean, hots, bere hartzekodun baten izenean jartzen zuenean letra–, eta baita deskontuak [*descuento, discount*] egiteko ere, zeinaren bitartez epea amaitu baino lehenago letra kobratzeko aukera ematen baitzuten bankuek, eragiketa horren truke –zer esanik ez– interes bat ateratzen ziotelarik truke-letraren titularrari¹²). Guztiak berrikuntza italiarrak izan ziren, oro har: Italiako iparraldeko hiriak izan ziren, alde horretatik, merkataritza kapitalismoaren sorleku nagusiak, garai hartan. Bestalde, eskualde batzuetan nabaritzen den bizkarkarien [*bubonero*] presentzia ez litzateke ezaugarri *atzera*ko bat izango, nekazaritza-arloko eskariaren berrindartzearen isla baino.

¹² Deskontu-tasa delakoa [*tasa de descuento*] interes-tasaren aurrekari argia litzateke.

Garai haietako beste ezaugarri bat, azkenik, banka publiko baten sorrera izan zen, hasiera batean Italian, eta, ondoren, beste herrialde batzuetan ere. Krisiaren eraginez bankariek eta trukalariek arazo handiak izan zituzten (izan ere, gorabehera garaietan monarkiek izan zituzten arazo finantzarioek, ordaindu gabe utzi zituzten zorrek eta estatuek askotan bultzatuko dituzten txanponen devaluazioek, dezente kaltetu zuten bankarien jarduera). Horren ondorioz, agintari publikoen garantia edo bermearekin zenbait banka erakunde eratu ziren, batez ere estatuaren kreditu-premiak asetzeko, hala Italian (aurrenekoa Genoako San Giorgioren Etxea izenekoa, 1407an), nola Katalunia bezalako beste zona batzuetan (*taulas de canvi* delakoak, Bartzelona eta Valentzian). Garai horretan sortu ziren beste kreditu-erakunde batzuk *monti di pietà* delakoak izan ziren, oro har eliza-erakundeek sortutakoak eta, printzipioz, irabazi asmorik gabekoak, herritar xeheei kreditu merkea eskaintzeko helburuarekin, bahitexre gisako funtzionamendua zela medio [*casa de empeños, pawnshop*]: aurrenekoa Ascoli Picenokoa (1458) eta Perugiakoa (1462) izan ziren; Aro Berrian antzeko erakundeak beste herrialde batzuetara zabaldu ziren (eta, neurri batean, egungo aurrezki kutxen aitzindaritzat har daitezke).

Oro har, Behe Erdi Aroak diruaren eta kredituaren erabileraren zabalkuntza ekarri zuen, hots, kreditua gero eta rol garrantzitsuagoa joan zen hartzen soberakinaren xurgatzean (nobleziarantz eta elizarantz, estamentu horietako partaideek, dirua izanik, kredituaren iturri inportantea izango zirelako, baina, geroz eta gehiago, burgesia hiritarrerantz, zeinaren barruan gutxiengo juduak garrantzia berezia izan baitzuen); ez zen jadanik soilik merkatarien eta erregeen kontua: zorduntza gero eta gizarte-talde zabalagoetara hedatzen joan zen, eta joera hori Aro Berrian areagotu zen, batik bat. Edonola ere, merkatuak menderatutako sistema ekonomiko batez hitz egitea guztiz ezinezkoa den arren, argi dago merkatuaren eta nazioarteko elkartrukeen garrantzia ekonomikoa handitzen joan zela (ez da harritzekoa, testuinguru horretan, zeharkako fiskoak aurrera egin izana, Estatuaren zerga-boterearekin batera). Dena dela, Behe Erdi Aroko krisiak ez zuen emaitza bezala sistema ekonomiko berri bat ekarri, sistemaren beraren eraldaketa bat baizik, jokoaren arauak feudalak izaten jarraitu baitzuten, funtsean: Feudalismo Klasikotik (X.-XIII. mendeak) Feudalismo Garatu edo Berantiarreara igaro zen (XVI.-XVIII. mendeak).

Erdi Aroaren amaieran Europa (eta horren barnean, Mendebaldekoa) ez zegoen, ziurrenik, Mediterraneo inguruko edo Ekialde Urruneko beste zona batzuk baino garatuagoa, ekonomiaren ikuspuntutik. Baina Aro Berrian gailentzen hasteko oinarri batzuk ezarrita zeuden jada: nazioarteko merkataritza sare sendo bat, itsasketa tekniketari gero eta aurreratuagoa; hiri-sistema dinamiko bat; teknologia militar gero eta eraginkor eta hilgarriago bat, eta, horrekin lotuta, sistema politiko atomizatu eta lehiakor bat, zeinaren baitan, hala eta guztiz ere, monarkia batzuen manupean, lurralde batzuk elkartzeko, hedatzen eta indartzen ari baitziren.